

**“TOMAS GARBIZU”  
LEZOKO UDALAREN  
MUSIKA ESKOLA**

**2021-2022  
IKASTURTEA**

**JARDUERAK**



AGENDA IHARDUERAK		2021-2022	
TOKI ESPARRUKO ESKOLA JARDUERAK	TALDEA	DATA	
COVID-19			
KILOMETRO LEZO Hurbiltasunaren Kultura	Musika Eskolako KONBO TALDEAK	IX-04	Eskolako patioan 20:00
ETXETXO Omenezko Ekitaldia frankismo garaiak	Sutargi, Txistulariak,	IX-11	Plazan 13:00
Txupinazoa (SANTAKRUTZAK "Jaiak")	Musika Banda eta Txistulariak	IX-12	COVID
Desfilea (SANTAKRUTZAK "Jaiak")	M.Banda, Txistulari eta Trikitilariak	IX-13	COVID
Zezen suzkoa eta emanaldia (SANTAKRUTZAK "Jaiak")	Musika Banda	IX-14	COVID
GANBARA MUSIKA Udazkeneko Kontzertua	Ane eta Oihan Espina eta besteak	X-30	ME 16:00
Kontzertua (SANTA ZEZILIA)	TGLUMEskolako Talde Instrumentala	XI-13	AUDITORIO 12:30
TXISTULARI TALDEAREN KALEJIRA (Lezo)	Txistulari Taldea	XI-21	KALEETAN 10:00
I. KANTUJIRA (Lezo)	Irekia (Sutargi Abesbatza)	XI-20	KALEETAN 12:30
Akordeioko audizioa Musika Eskolan, Arrasatera joango direnak	Akordeoi ikasleak	XI-26	ME 18:30
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERARIK EZ, EMANALDIK	Ganbara kontzertua eta abar	XII-11	ME 16:30
Euskararen eguna (Lezo)	Talde Koralk eta Talde Instrumentalak	XII-03	ME 18:00
29. ARRASATEN AKORDEOI LEIHAKETA	Akordeoi ikasleak	XII-02-04	
XX. KLARINETE MARATOIA ZUMAIK	Klarineteko ikasleak	XII- 08/ 12	
GANBARA MUSIKA Indarkeriaren Aurkako eguna	Ane eta Oihan Espina eta besteak	XII-11	ME 16:00
II. KANTUJIRA (Lezo)	Irekia (Sutargi Abesbatza)	XII-18	KALEETAN 12:30
Gabonetako kontzertua (Pedagogikoa)	Banda + Talde koralk	XII-18	Kiriolegiko Front 12:30
Gabonetako kontzertua (MM 1.1)	Musika eta Mugimendua 1.1.	XII-20	ME 17:30
Gabonetako kontzertua (Bakoitzak abesti bat)	TGLUMEskolako Tresna ikasleak	XII-22	AUDITORIO 19:00
Gabonetako kontzertua (MM 1.2)	Musika eta Mugimendua 1.2.	XII-23	ME 17:00
Gabonetako kontzertua (Abesbatzak)	Sutargi eta AitonBorda	XII-23	SCRISTO 19:30
Gabonak Hator Hator Kantatzera (Egitasmoa- Kalejira)	Taldeak, Akordeoia, Txistua, Trikitixa	XII-24	LHEKO PATIOAN 12:00
Gabonak Kalejira Aiton Bordakoekin	Trikitixa Taldea	XII-24	KALEETAN 16:30
ERRENTERIA Gabon Abestien Sariketa	Sutargi Abesbatza	XII-26	
Gabonak Kalejira Urte amaierakoa "Koplak Kantari" Bideoa	Talde Koralk*, Trikitixa T., abesbatzak	XII-31	KALEETAN 16:30
III. KANTUJIRA (Lezo) 2022	Irekia (Sutargi Abesbatza)	I-15	KALEETAN 12:30
Santa Ageda Kalejira	Taldeak eta AitonBorda Abesbatza	II-04	KALEETAN 18:30
GANBARA MUSIKA	Ane eta Oihan Espina eta besteak	II-05	ME 16:30
17. ANDOAINGO PIANO JAIALDIA (Andoain)	Piano ikasleak	II-12/13	Basterp 12:00
IV. KANTUJIRA	Irekia (Sutargi Abesbatza)	II-19	KALEETAN 12:30
GANBARA MUSIKA Kontzertua	Ane eta Oihan Espina eta besteak	II-19	ME 17:00
GANBARA MUSIKA Kontzertua	Ane eta Oihan Espina eta besteak	II-26	Gezala 16:30
Inauteriak Ostegunzuri	Banda, Triki, Akordeoia	II-24	
Inauteriak Ostiraleri- ZIRIKUAK	Txistua	II-25	
Inauteriak Asteartebeltz- HERIO BIDAIA	Banda, H.Musik, Txistulari Taldea	III-01	
GANBARA MUSIKA Kontzertua	Ane eta Oihan Espina eta besteak	III-05	
Piano Audizioa Musika Eskolan, Andoainera joango direnak	Piano ikasleak	III-17	ME 17:15
V. KANTUJIRA (Lezo)	Irekia (Sutargi Abesbatza)	III-19	KALEETAN 12:30
ETXETXO Omenezko Ekitaldia frankismo garaiak	Sutargi abesbatza eta ....	III-20	KALEETAN 17:30
LESOINU 2022			
TAILER DIDAKTIKOA		III- 25/ IV-10	
DANTZA Gezalan "Besarkada"	Tomas Garbizu Musika Eskola	III-25	Gezala 17:00
KONTZERTU Perdagogikoa	Nerea Martinez	III-27	Gezala 20:00
ANTZERKI MUSIKALA: "Zuhaitzak Landatzen zituen istorioa"	Tomas Garbizu Musika Eskola	IV-01	Gezala 11:00
TANGOSOPHY TALDEA	Gorakada	IV-01	Gezala 17:15
DIANA	Javier Berná & Gorka Hermosa	IV-02	Gezala 20:00
Kontzertua "La Flor" (Biolontxeloa eta Ahotsa kubatarra)	Tomas Garbizu Musika Eskola Txistulariak	IV-03	kalez kale 10:00
KONTZERTUA	Ana Maza	IV-03	Gezala 20:00
MUSIKA EKOIZPEN DIGITALA	Tomas Garbizu Musika Eskola	IV-04	Gezala 18:00
PERKUSIO KONTZERTUA	Ion Jimenez Guerrero	IV-04/05	ME 19:00 / 18:00
KONTZERTUA	TRIO Perkusio Taldea	IV-06	Gezala 19:00
KONTZERTUA JAZZ	Tomas Garbizu Musika Eskola	IV-07	Gezala 18:00
KANTUJIRA	h3o Quartet	IV-08	Gezala 19:00
KONTZERTUA Euskadiko Musikari Gazteak	Partaidetza irekia	IV-09	Aiton Bordatik 12:30
ARIMA Dantza & Pianoa	eta Sutargi Abesbatza	IV-09	Gezala 19:00
GANBARA MUSIKA Kontzertua	Amaia Elizaran & Liam Ómaonlai	IV-10	Gezala 20:00
V. Bortzietako abesbatza topaketa (Harriondoa - Lesaka)	Ane eta Oihan Espina eta besteak	V-14	ME 16:30
KANTUJIRA	Bihotzez, Sutargi eta Giltzarri	V-14	Lesakan 20:00
GANBARA MUSIKA Kontzertua	Partaidetza irekia	V-21	Aiton Bordatik 12:30
MENDEKOSTEAK Kontzertua	Ane eta Oihan Espina eta besteak	V-28	ME 16:30
MENDEKOSTEAK Kontzertua	Musika Banda	VI-04	Plaza 13:00
MENDEKOSTEAK "Zezen Suzkoa"	TGLUME-ko Taldeak	VI-04	Saldise 16:30
MUSIKALDIA 2022 Trintxerpe	Musika Banda	VI-05	Plaza 21:45
EUSKAL JAIK	Trikitixako ikasleak	VI-04	Pasaia
GANBARA MUSIKA Kontzertua		VI-10	
X. KANTUJIRA (Lezo)	Ane eta Oihan Espina eta besteak	IV-11	
GANBARA MUSIKA Kontzertua	Irekia (Sutargi Abesbatza)	VI-18	
MURIXKA KURTSO AMAIERA 2022	Ane eta Oihan Espina eta besteak	IV-18	
	Txistulari Taldea	VI-12	
KURTSO AMAIERAKO AUDIZIOAK 2022			
KURTSO AMAIERAKO AUDIZIOA.....		V-30/VI-06/23	
KURTSO AMAIERAKO PEDAGOGIKOA.....	Talde Koraleko ikasleak	VI-02	
KURTSO AMAIERAKO AUDIZIOA.....	PEDAGOGIKOA	VI-03	
KURTSO AMAIERAKO AUDIZIOA.....	Biolina eta Hari Orkestra	VI-06	
KURTSO AMAIERAKO AUDIZIOA.....	Perkusioiko ikasleak	VI-08	
KURTSO AMAIERAKO AUDIZIOA.....	Musika eta Mugimendua 1.1. / 1.2.A B D	VI-09	
KURTSO AMAIERAKO AUDIZIOA.....	Pianoa eta Akordeoia eta TIA1/ TIA2	VI-09	
KURTSO AMAIERAKO AUDIZIOA.....	Saxofoia eta KALARINETEA	VI-10	
KURTSO AMAIERAKO AUDIZIOA.....	Flautako ikasleak ETA TRONPETA	VI-13	
KURTSO AMAIERAKO AUDIZIOA.....	Txistuko ikasleak	VI-15	
KURTSO AMAIERAKO AUDIZIOA.....	Trikitixako ikasleak	VI-16	
KURTSO AMAIERAKO AUDIZIOA.....	Gitarrako ikasleak	VI-20	
TOKI ESPARRUTIK KANPO ESKOLA JARDUERAK			





# “TOMAS GARBIZU” LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA

**MATRIKULA EPEA  
2021-2022  
IKASTURTEA**

**IKASLE OFIZIALAK**

**TELEMATIKOKI –  
Telemáticamente.**

**IKASLE BERRIAK  
MAIATZAREN 17tik 28ra.**

**TRESNAK**

**Trikitixa, pianoa, klarineta,  
saxofoia, txistua, flauta,  
perkusioa, biolina,  
biolontxelo, akordeoia,  
tronpeta, kitarra, bateria eta  
GANBARA TALDEA**

- **Instrumentu-irakasleekin komunikatzeko eguna: Irailak\* 3\* (17:00etatik-18:00etara)**  
Comunicación con los profesores de instrumento. Día: \*3\* de Septiembre (17:00 - 18:00h)
- **Musika Mugimendua, Musika Mintzaira eta Hezkuntza ikasten ari diren ikasleen gurasoekin komunikazioa eskolako lehen astean egingo da. Orduategiak emailaz bidaliko dira.**  
La comunicación con los familiares del alumnado que cursa Música y Movimiento, Lenguaje musical y Educación Musical se realizará la primera semana de clase. Los horarios de dichas asignaturas se enviarán por email.
- **Kurtso hasiera: Irailak \*6\* .**

**INFORMAZIOA**

“Tomas Garbizu” Lezoko  
Udalaren Musika Eskola.  
Telf.: 943529999  
[tgarbizume@lezo.net](mailto:tgarbizume@lezo.net)




**JAIALDIA**

ABUZTUA - IRAILA 2021

# Kilometro LEZ



HURBILTASUNAREN KULTURA



Lezoko  
Unibertsitateko  
Udala



Comunidad  
Foro Alhambria



GOBIERNO  
VASCOS  
KULTURA

SARE4  
CENTRO DE INVESTIGACIONES  
EN LAS CIENCIAS  
DE LAS ARTES  
DE LAS LETRAS  
DE LAS CIENCIAS  
DE LAS CIENCIAS  
DE LAS CIENCIAS



# KILOMETROLEZO 2021

LEZO

## La recta final de kilómetro Lezo traerá espectáculos de gran nivel

Las últimas citas incluirán actuaciones donde conviven el humor, la danza, la música y el teatro, en la Herri Eskola

AYAR SALAZAR

LEZO. Kilómetro Lezo de 2021 está en la recta final. Quedan dos fines de semana intensos y con artistas de alto nivel.

Hoy viernes, a las 20.00 horas, el grupo de teatro Hortzmuga trae 'Bidearen amaieran' presentará una comedia emocional de calle y para todos los públicos. Llena de humor y sentimiento. Mientras la vida del padre que ha huido de una residencia de ancianos está dominada por el alzhéimer, el hijo tiene el oficio de Drag Queen. Más tarde a las 23.00 horas llegará el turno de Laila Tafur y su espectáculo titulado 'Monstruo', Tafur es una bailarina y profesora en el Conservatorio de Barcelona, se declara una mujer que quiere ser libre, plena, absoluta. Sus actuaciones son muy sensibles.

Mañana sábado, a las 20.00 horas será el turno de tres grupos de la Escuela de Música: Gotzen, integrado por Aitana, Ane, Aiora, Endika, Aratz y Unai, y Ordu



El alcalde Jesus Mari Martiarena y el concejal Ion Pombar en la presentación del programa. ARIZMENDI

Txarra, conformado por Idoia, Emilio, M<sup>a</sup> Carmen y finalmente Jaig, con los músicos Gorka, Jesús, Iker, Aitzol. La escuela de música ha desarrollado una formación complementaria para trabajar diferentes tipos de música, folk, Rock, Combos, y se podrá ver el resultado el sábado.

A las 23.00 horas la banda de rock Willis Drummond hará retumbar el patio de la Herri Eskola. Hace un año, publicaron 'Zugzwang', su sexto trabajo. Tras 2 conciertos en Euskal Herria y una

gira por el mundo, tuvieron que parar violentamente en la primavera de 2020, durante el parón, Willis Drummond ha cambiado de formato y se ha subido a la nave Vincent Bestaven con su voz, guitarra y teclados.

### Próxima semana

La programación no finaliza este fin de semana, el próximo viernes, día 10, a las 20.00 horas llegará una obra de teatro a cargo de Orratz Antzerki Taldea, bajo el título 'Antroan Intro'. La obra

trata de un bar llamado 'Antro', que como indican los creadores, «es el agujero más oscuro y perdido de la ciudad. En el se puede entrar, crear, presentar, enloquecer... Lamentablemente, hoy es el último día del bar...» En la obra participan los lezoarras Mertxe Larrea, Begoña Azpiazu, Joseba Salaberria, Amaia Herreiro, Araitz Larrea, Edurne Agirrezabala, Lierni Fresnedo, Pello Elvira, Begoña Amonarriz y Patxi Larrea.

Más tarde, a las 23.00 para fina-

lizar el viernes se presentarán tres grupos de dantzaris de Lezo que quieren mostrar su pasión a todo el mundo. Primero llegará Eztandak, un grupo que durante el confinamiento se embarcó en la experiencia de unir la zumba y el Tik Tok. Le seguirá Amañur Luluaga con su primer proyecto creativo, en el que se trabaja «la relación entre sujeto y comunidad, a través de la locura que es el principal exponente de las desigualdades humanas». Finalmente, Meeting Point, un grupo formado por dos jóvenes que vienen del mismo continente, pero de dos ciudades alejadas entre sí. Han descubierto un nuevo lugar en el que se mezclan lenguajes como el break dance y el Hip Hop bajo la mirada de la danza contemporánea.

La jornada final llegará el día 11 a las 19.00 horas con dos grupos de música, primero estará GonaPK, un grupo formado en Lezo hace dos años, sus letras abordan diferentes áreas de la vida: el existencialismo, la política... Mezclan las letras de las canciones con una música rock muy heterogénea: rap, punk, punk-rock... a las 20.30 subirán al escenario ETS: Aukera berriak, que siguen presentando su quinto disco. Este grupo, con sus letras, incita a aprovechar todas las oportunidades que nos brinda la vida.

Aunque las entradas de algunos eventos están agotadas, se pueden conseguir invitaciones para otros muchos. Son invitaciones gratuitas y se pueden adquirir en la página web del Ayuntamiento de Lezo.

### OIARTZUN

## Zabalik da Hazilan 16 Oarsoaldea egitasmoan izena emateko epea

Praktikak egiteko aukera ere izango dute partaideek

GOIZARIN

OIARTZUN. Joan den astean zabaldu zen Hazilan 16 Oarsoaldea egitasmoan izena emateko epea. Lana bilatzen laguntzeko egitasmo bat da honakoa. Bertan, 80 orduko hasierako prestakuntza-prozesu bat egiten da gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzeko eta garatzeko, eta, ondoren, lanbide-profilarekin lotutako enpresetan aldi baterako praktikak egiteko aukera izango da.

Horrez gain, enplegua bilatzeko orduan norberaren motibazioa eta segurtasuna areagotzen lagunduko duen hainbat gai landuko dira: lanbide-profila definitzea, talde-dinamiketan treba-

ztea, gizarte- eta komunikazio-trebetasunak garatzea, marka pertsonala, enplegua bilatzeko tresnak... Orain arte, 236 pertsonak hartu izan dute parte Hazilan Oarsoaldea proiektuan eta, datuen arabera, %75ek lana aurkitu dute programa amaitu eta gero.

Hazilan 16 Oarsoaldea Eusko Jaurilaritzak onarturiko egitasmoa da, Europako Gizarte Funtsak %50ean diruz laguntzen duena, eta Garapenek -Garapen Agentzien Euskal Elkarteak- kudeatzen du. Guztira 20 garapen agentziek parte hartzen dute Hazilan egitasmoan eta Oarsoaldea eskualdean bertako Garapen Agentziak kudeatzen du.

### Baldintzak

Aurreko edizioetan bezalaxe, honakoak dira Hazilan proiektuan



Batez ere gazteei zuzendutako proiektua da. GOIZARIN

parte hartzeko baldintzak: 20 eta 44 urte bitarte edukitzea; Goi Mailako formakuntza (FP II) eta/edo unibertsitateko titulua duten gazteei zuzenduta, eta langabezia izatea.

Proiektua hildaren 30ean hasiko da. Interesa duten pertsonei elkarrizketa pertsonala egingo zaie profila, interesa eta egitasmorako egokitasuna baloratzeko. Oarsoaldea Garapen Agentziaren

arduradunek baldintzak betetzen dituzten gazte guztiak programan parte hartzera animatu dituzte, «aukera bikaina baita beraien egoera hobetzeko».

### Izen-ematea

Izena eman nahi izanez gero, 943 404 101 edota 943 510 200 telefono zenbakietara deitu edota olibet@oarsoaldea.eus posta elektronikora idatzi daiteke.

## Oiartzungo turismo bulegoak itxi ditu atak


GOIZARIN

OIARTZUN. Uda garaian bi hilabetez, uztaila eta abuztua, zerbitzua eman ondoren, pasa den asteartean itxi zituen bere atak Oiartzungo turismo bulegoak. Aurten, kokaleku berria izan du bulegoak: Arizmendiena.

Turismo Bulegoak eskaintzen dituen ohiko zerbitzuez gain (Oiartzun ezagutzera datozenei informazio praktikoa ematea), udan zehar antolatua diren Kulturabirusako ekintzetarako sarrerak ere bertan banatu dira. Era berean, Tren Berdea antolatua du Arditurri- ra. Horrez gain, San Esteban elizan bisita gidatuak ere bideratu dira, Joxe Mari Mitxelena gidatuta.

Elizara egimgo diren bisitak doakoak izango dira, baina aldeaz aurretik izena ematea derrigorrezkoa izango da.





Ezkerrean En Tol Sarmiento taldea, eta eskuinean (behean) Ilargi lezoarra. Goialdean, Martiarena eta Pombar, aurkezpenean. HITZA

## Bigarren Kilometro Lezo, luzeagoa eta zabalagoa

Udako kultur eskaintzak iazkoak baino astebete gehiago iraungo du. Ekitaldien nolakotasunean ere aldaketarik bada, esparru gehiagotara zabalduta dituztelako. Lezoko sortzaileak, present.

### URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Kilometro Lezoren bigarren ekitaldia egingo dute aurten, abuztuaren 13tik irailaren 11ra arteko asteburuetan. Ostiral eta larunbatetarako hogeitau jarraia programatu ditu Lezoko Udalak, egun bakoitzeko bina. II. Kilometro Lezok, iazkoarekin alderatuz, astebete gehiagoko iraupena izango du.

Ekitaldi guztiak Lezo Herri Eskolako jolastoki estalian izango dira, doan. Aurretik, ordea, gonbidapena hartu behar dute interesdunek; horiek Kultura Sailaren bulegoan edo *online* (*lezo.eus* webgunean) eskura daitezke.

Ekitaldi guztien publiko muga 250 pertsonakoa izango da, musukoarekin

eta eserita egon behar dute ikusleek (segurtasun distantziarekin), eta eskuak gelarekin garbitu beharko dituzte. Beraz, osasun segurtasun protokolo zorrotza izango dute emanaldi guztiek.

### «Aputsu irmoa»

Jesus Mari Martiarena alkateak eta Ion Pombar Kultura zinegotziak aurkeztu dute udako kultur eskaintza. Alkateak adierazi du, iaz bezala, udalak kulturaren aldeko «apustu irmoa» egiten duela, «bai urtean zehar, baita udaran ere». Hala, kulturak herriari bizia ematen dio-lar garbi du udal agintariak.

Pombarrek, bere aldetik, adierazi du koronabirusagatik geldialdia izan zuela kulturak, eta Lezoko Udala sektoreari bultzada emateko saiakera egiten ari

dela azken urtean. «Iazko ekitaldiek izandako arrakasta ikusita, aurten ere ildo beretik jarraitzea erabaki dugu», zehaztu du Kultura zinegotziak.

Pombarren ustez, kulturaren aldeko hautua udarara zabaltzea ez da ausazkoa: «Kultura indartzen eta suspertzen jarraitu nahi dugu, eta aukera bikainak ikusi ditugunez, agenda astebetez luzatzea erabaki dugu». Enfasia jarri du udal ordezkariak emanaldien egunetan (ostiraletan eta larunbatetan dira), «plan bi-koitza» izango dutela lezoarrek eta hala nahi duten guztiek. Hala, emanaldi eta emanaldi artean, mokadutxoa jateko edo tragoska hartzeko aukera izan dezakete hala nahi dutenek, irailaren 11n kenduta, saioak 20:00etan eta 23:00etan direlako.

Egitarauaren barruan hainbat diziplina hartu dituzte aintzat, hala nola musika, antzerkia, zirkua (aurtengo berritasuna) eta dantza. Lezoko sortzaileek tartea izango dute: Orratz! Antzerki Taldeak, Ilargi Arrizabalaga bakarlariak, eta Tomas Garbizu Musika Eskolaren bueltan sortutako rock taldeek merezitako tokia dute ekitaldien zerrenda luzean. Kultura arduradunak nabarmendu du herriko hainbat eragileren laguntza izan dutela egitaraua osatzeko. X



## EGITARAUA

## ABUZTUAK 13

**20:00.** Mendian ibiltari izeneko familia antzerki-kantu saioa Kontukontari taldearekin.

**23:00.** Hika konpainiaren *Tonbola* antzez-lana.

## ABUZTUAK 14

**20:00.** Demodé Quartet taldearen kontzertua.

**23:00.** Hatxe bakarlari errenteriarraren kontzertua.

## ABUZTUAK 20

**20:00.** Xampatito Pato taldearen Só zirku ikuskizuna.

**23:00.** Zen del Sur konpainiaren *Orbita* dantza obra.

## ABUZTUAK 21

**20:00.** Ameba musika taldea.

**23:00.** Niña Coyote eta Chico Tornadoreen kontzertua.

## ABUZTUAK 27

**20:00.** Trapu Zaharra konpainiaren *Por hacerte un favor* antzerkia.

**23:00.** La Gata Japonesa taldearen *Los viajes de Bowa* zirku emankizuna.

## ABUZTUAK 28

**20:00.** Ilargi Arrizabalaga lezoarraren kontzertua.

**23:00.** Anne Etchegoyen abeslariaren kontzertua.

## IRAILAK 3

**20:00.** Hortz mugua antzerki taldearen *Bidearen amaieran* lana.

**23:00.** Laila Tafur dantzariaren *Monstruo* ikuskizuna.

## IRAILAK 4

**20:00.** Ordu Txarrak, Gotzen eta Jaig Lezoko taldeen kontzertua. Tomas Garbizu Musika Eskolan sortutako rock taldeak dira.

**23:00.** Willis Drummomd musika taldearen saioa.

## IRAILAK 10

**20:00.** Lezoko Orratz! Antzerki Taldearen *Antroan intro* lana.

**23:00.** Eztanda, Amaiur Luluaga eta Meeting Point dantzari eta dantza taldeen emanaldiak.

## IRAILAK 11

**19:00.** GonaPKren kontzertua.

**20:30.** En Tol Sarmiento taldearen kontzertua.

## Bueltan da Josetxo Etxandi oroitaldia

Allerru Pilota Taldeak antolatuta, aurre ez du hutsik egingo Josetxo Etxandi Pilota Oroitaldiak. Iazko *atsedenaldiaren* ondoren, esku pilota txapelketa herrikoien 45. ekitaldia martxan jarri dute. Izan ere, koronabirusagatik ezin izan zen egin 2020an Lezon nahiz inguruan sona handia duen pilotarien topagunea.

Partidak Koldobike Gezala pilotalekuan jokatuko dituzte, eta COVID-19a dela eta, baldintza bereziak ezarriko dituztela jakinarazi dute. Bertan egon daitezkeen ikusleek arauak bete beharoko dituzte. Norgehiagoka horietan kanporaketa sistema erabiliko dute, hau da, partidak galtzen dituztenek ez dute aukerarik izango lehian jarraitzeko, eta irabazleek hurrengo faserako sailkapena lortuko dute.

Hiru kategoria hitzartu dituzte Alle-



HITZA

rru Pilota Taldekoek: 12 urtetik beherakoena; 13-15 adin tartekoena; eta 16 urtetik gorakoena.

Txapelketan izena eman nahi duten lezoarrek Txingurri tabernara joan behar dute, han dagoelako izen ematerako zerrenda. Bihar —larunbata, hilak 31— bukatuko da apuntatzeko epea. Partidak abuztuko lehen astean dira hastekoak, eta irailaren erdialdera bukatuko litzateke lehia, betiere bikote kopuruaren arabera.

## Lanak Tomas Garbizu kaleko garajeetan

Joan den astean hasi ziren Altamira auzoko Tomas Garbizu kaleko 22-23 zenbakietako garajeen estalkia eraberritzen. Iragazte arazoak dituzte garajeetan, eta lanen xedea da horiekin bukatzea. 342.286 euroko aurrekontua dute lanek, eta sei bat hilabeteko iraupena izango du Construcciones Echaid de SAK hartu duen zereginak.

Lanak egiteko, 2018ko urriaren 16an udalak eta garajeen jabeek hirigintza hitzarmena sinatu zuten. Horren arabera, plazak dituztenek lanen kostuaren zati bati aurre egin behar diote.



HITZA

## Herriaren informazioa aplikazio berrituan

Lezoko Kultura Saileko aplikazioa berri dute. Asmoa da udalerriko kultur emariaren berri era erakargarriago eta ikusgarriagoan izatea gailu eramangarrien bidez (sakelako telefonoak eta tabletak). Hala, besteren artean, argazkiek garrantzia handiagoa hartu dute, mezuen argitasuna areagotuz. Kultura Sailak aurreratu du berri duren atalez gain, beste batzuk hobetzeko lanean ari direla.

Aplikazioa doan deskarga daiteke Android eta iOS teknologia erabiltzen duten gailuetan Interneteko denda birtualetatik: horien bilatzailean *Lezo kultura* jarri behar da jaitsi nahi den aplikaziora era azkarrean iristeko.

Kulturako gaiez gain, udalaren egunerokoarekin harremana duten beste hainbaten berri izan daiteke aplikazioaren bitartez. Gainera, sarreraren salmentarako zerbitzuak ere badu tartea, eta aldi berean, kiroldegirako online hitzorduak ere har daitezke, nahiz horien edukiera ikusi.





# “TOMAS GARBIZU” LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA

## MATRIKULA EPEA 2021-2022 IKASTURTEA

IKASLE BERRIAK

IRAILAREN 1etik 5era

### TRESNAK

Trikitixa, pianoa, klarinetea, saxofoia, txistua, flauta, perkusioa, biolina- biola, biolontxelo, akordeoia, tronpeta, kitarra, bateria eta GANBARA TALDEA

- Instrumentu-irakasleekin komunikatzeko eguna: Irailak\* 3\*, (17:00etatik-18:00etara)  
Comunicación con los profesores de instrumento. Día : \*3\* de Septiembre (17:00 – 18:00h)
- Musika Mugimendua, Musika Mintzaira eta Hezkuntza ikasten ari diren ikasleen gurasoekin komunikazioa eskolako lehen astean egingo da. Ordu-tegiak zehaztuko ditugu.  
La comunicación con los familiares del alumnado que cursa Música y Movimiento, Lenguaje musical y Educación Musical se realizará la primera semana de clase. Concretaremos horarios.
- Kurtso hasiera: Irailak \*6\* .  
Comienzo de curso: 6 de Setiembre.

### INFORMAZIOA

“Tomas Garbizu” Lezoko  
Udalaren Musika Eskola.

Telf.: 943- 529999

[tgarbizume@lezo.net](mailto:tgarbizume@lezo.net)



# LEZO

## MEMORIA HISTORIKOA

EGIA, JUSTIZIA ETA KONPONKETA  
VERDAD, JUSTICIA Y REPARACION

### DOKUMENTALA



Irailak 16 - 19:30ean  
Gezala Auditoriumean




## HAUR HERBESTERATUAK

Droitzapen berezi batez Lezoko  
"Gerrako hurrei" eskainia.

Con un recuerdo muy especial  
para los "niños de la guerra" de Lezo.

### ANTZERKIA



Irailak 26 - 20:00etan  
Gezala Auditoriumean



## REQUIEM POR UN CAMPESINO ESPAÑOL

Sarrerak alde zurretik hartzea gomendatzen da / Se recomienda adquirir las entradas con antelación  
[www.lezo.eus](http://www.lezo.eus) / Kultura aretoa (Donibane kalea)



# ETXETXO Omenaldia

## Sutargi abesbatza

### KONTATZEN EZ DENA, EZ DA EXISTITZEN!!!

Bi egun barru, irailaren 13an 85 urte beteko dira frankistak Lezon sartu zirela.

Duela minutu gutxi, Udalbatza aretoan omenaldi txiki bat egin diote, duela 85 urte, modu herrikoi eta demokratikoan hautatu zuten udalbatzari.

**ETXETXO**tik bat egin nahi dugu Lezoko Udalak **FELIX ARRIAGA ZAPIRAIN** udal-langileari egin dion omenaldiarekin, hau indarkeria frankistaren beste biktima bat izan zen Lezon.

1936ko abuztuaren 26an, goizeko 9,30etan, errepublikaren aurkako matxinatuaren hegazkin batek hainbat bonba jaurti zituen Lezon. Bonba hauen helburua Donibane kaleko Centro Republicano-ren lokala izan zen.

Eztandak bete-bete harrapatu zuen Felix Arriaga, udal langile gisa garbiketari lanak egiten ari zen bitartean.



Felixekin batera, Esperanza Sein Garmendia 21 urteko gaztea eta Carmen Ginto Etxenike bi urteko neskatua hil ziren eta pertsona ugari zaurituak izan ziren.

Batzuetan, gerra hari buruzko istorioak entzuten ditugunean, urruneko zerbait izan zela iruditzen zaigu, beste leku batean gertatu zen zerbait.

**EZ!!! EZ!!!** Hemen Lezon ere gerra zuzenean bizi izan zen.

Hemen, Lezon, frankismoak eraildako **47 pertsona** ditugu zenbatuta.

**Hemen, gure herrian, asko sufritu zen, beldurrez bizi izan zen. Errepresioa urte luzez etengabea izan zen.**

Frankismoa 40 urtez nagusitu zen, eta gaur egun, 85 urte geroago, Estatuko MEMORIA HISTORIKOA berreskuratzeko lanak oraindik ere oztopo ugari aurkitzen ditu urte krudel haietan gertatu zen guztia argitaratu ateratzeko.

Oraindik, ehunka gorpu daude areketan lurperatuta, hobi komunetan, aurkitu ezinik, lurperatu ezinik.

Gaur egun, aztarna frankistak dituzten herriak aurkitzen ditugu. Faxistak omenaldiak egiten. Alderdi politiko, erakunde eta pertsona garrantzitsuak, frankismoaren apologia lotsagabeki egiten. Etengabe ari dira senideei eta biktimei iseka egiten eta iraintzen. Hori guztia zigorgabetasun osoz, eta 45 urteko trantsizioan gobernu-erakundeek ez dute hori saihesteko baliabiderik jarri.

Gustatuko litzaziguke gaur hona etorri zaretenok, hau guztia gogoratzeaz gain, zuen etxeetan jakinaraztea. Zuen lagunei kontatzea, baita zuen lanpostuetan, zuen ikasketan-zentroetan eta herri honetako kaleetan zabaltzea ere.

**Ezagutu dadila, jakin dadila. EZ DADILA AHAZTU!!!**

Hemen, Lezon, oroitzapenak bizirik mantentzen dituzten familiez gain, pertsona talde batek hura ez ahazteko eta ez errepikatzeko lanean jarraitzen dugu.

Hemendik, bertaratutako guztiei eta bereziki gazteenei ez ahazteko gonbitea luzatzen dizuegu. Memoria Historikoa berreskuratzeko lanean hastera gonbidatzen zaituztegu.

**Zuek zarete hori guztia hurrengo belaunaldiei transmititzen jarraitu beharko duzuenak.**

Hau Frankismoaren biktimei justizia eta aitortza emateko ekitaldi bat baino ez da Lezon. Oraindik asko dago egiteko.

Guk, **ETXETXO Lezoko Memoria Historikoaren Taldeak**, aurrera jarraitzeko konpromisoa berresten dugu, Lezon frankismoaren biktima guztiak aintzak hartu eta ahaztu ez daitezen.

Lezon guztientzako **EGIA JUSTIZIA** eta **ERREPARAZIOA** izateko.

Lezon 11/09/2021



Lezoko memoria historikoaren taldea



# ETXETXO Omenaldia (2021 Iraila)

## **TACIÓN**

de 1936, fue cruel, largo y oscuro para los vascos. Con el término, como a los largos años de miedo y olvido premeditado que les particularmente duros para nuestro pueblo; los días y semanas que requetés que venían Oiartzun e Irún, así como la propia ocupación duras y sangrientas.


de Lezo os invita y os solicita que acudáis a los actos que se a y homenaje de l@s que sufrieron aquellas graves injusticias.

### **horas en la Plaza**

trabajador del Ayuntamiento asesinado por una bomba lanzada por

### **ditorium Gezala**

GUERRA" Con un pequeño pero



### **00 en el patio de las escuelas**

MPESINO ESPAÑOL, exponen y representan la tematica de la

### **JENTA NO EXISTE!!!**

En KULTURA Aretoa (Donibane Kalea) o en [www.lezo.eus](http://www.lezo.eus)



LEZO

# Faxistek desegin zutenari aitortza egin diote

Aste honetan 85 urte bete dira Francoren aldeko indarrak Lezon sartu zirela. Garai hartako udalbatzak eta hil zuten udal langile batek udalerriko paretetan izango dute betirako errekonozimendua.

URKO ETXEBESTE PETIRENA

Astelehenean bete ziren 85 urte Francoren indarrak Lezon sartu zirela. 1936ko irailaren 5ean Irun suntsitu eta hartu ondoren. Bide horretan, bai Jaizkibelen zein Gaintzurizketan miliziarrek eta gudariak aurre egin zieten faxistei, baina irailaren 13an babes lerro hori hautsi, eta herrian sartu ziren eskualde osoa bere eginez, Donostiaranzko bidean.

Lerroa defendatzen bost borrokalari hil zituzten irailaren 4tik 10era, horietatik bi pasaitarrak: Celedonio Perez Sesma eta Antonio Vicente Zapirain, PSOE-UGTren Pablo Iglesias taldeko miliziarak. Irailaren 15ean, berriz, Jose Maria Larreta Intxaurrendieta zortzi urteko umea hil zuten. Faxistek Lezo armaz hartu zutela ospatzeko Donibane kalean botatako tiroetako batek jo zuen.

Herrian sartu, eta demokratikoki hautatutako udalbatza desegitea izan zen erasotzaileen lehen zereginetakoa. Etxetxoren ekimenez eta Lezoko Udalaren babesarekin, haiek omendu zituzten joan den larunbatean udaletxe barruan egindako plaka-jartze ekitaldi xumean, egungo udalbatzako kideak



Patruxi Lopetegi eta Jesus Mari Martiarena alkatea, udalbatza oroitzeako plaka alboan. I. Saiz



Plazako ekitaldira lezoar asko joan ziren. Erabat bete zen. I. S.



Arantxa eta Nekane Arriaga aitonen aitortza plakaren ondoan, alkatearekin. I. S.



eta Patruxi Lopetegi (1936ko udan Lezoko alkate zen Patricio Lopetegiren alaba) arduratu zirelarik oroigarriari estalia kentzeaz. Aldi berean, 1936ko abuztuaren 26an frankisten bonbardaketa batean hildako Felix Arriaga Zapirain udal langileari ere aitortza egin zioten, plazan plaka jarrita: Jesus Mari Martiarena alkateak, eta Zapirainen biloba Arantxa eta Nekane Arriagak agerrarazi zuten oroitze euskarria. Bonbardaketa hartan Esperanza Sein Garmendia eta Carmen Cinto Etxenike neskatoa hil ziren. Aurrerago omenduko ditu Etxetxok.

**Etxetxo, gustura**

Etxetxokoak asebate gelditu dira larunbatean izandakoekin. «Zapore oso ona gelditu zaigu. Jendearen erantzuna bikaina izan zen, eta nabarmentzekoa da hainbat erakundetako ordezkariak lehenengoz agertu zirela Lezoko ekitaldi batera, hala nola aldundiko Giza Eskubide eta Kultura Demokratiko saileko zuzendari Ion Ganbra, eta Gogorako zuzendari Aintzane Ezenarro», zehaztu du Joxe Luix Agirretxek.

Omendutako senideekin izan ziren larunbatean Etxetxokoak. Beharrezkoa eta hunkigarria izan zen haientzat ere ekitaldia. Agirretxek kontatu du, gainera, Arriagaren familiak beste kolpe bat jaso zuela 1963. urtean: «Udal langilea zenez, udal-txearen atzealdean dagoen plazatxoari haren izena ematea erabaki zuen orduko udalak. Izena jartzeko tramitetan zebiltzala Juan XXIII Aita Santua hil zen. Azkenean, azken honen izena jarri zioten plazatxoari, ez Arriagarena. Larunbatekoarekin, haien mina nolabait arindu da». Patruxi Lopetegik anekdotarako galdera egin zuen: «Udaletxe barruko plaka hau, betirako jarri da, edo gaurko barruk?»; bai, betirako izango da bertan aitortzarako eta erreparaziorako euskarria.

Etxetxok antzerki saioa antolatu du hilaren 26rako (20:00etan Gezalan). *Requiem por un campesino español* lanarekin bukatuko dituzte iraileko memoria historikoko jarduerak. X



**Orratx!-en gazteen taldeak, partaide bila**

Urtero bezala, Orratx! Antzerki Taldeak haur eta gaztetxoentzako antzerki tailerrak prestatu ditu. Ohiko izan dute bi talde eratzea aurreko urteetan, baina ikasturte berrirako hirugarrenaren alde ere egin dute, 6-8 adin tartekoena. Beraz, 12-14, 9-11 nahiz 6-8 adin tartean dabiltzanerenak dira eratu nahi dituzten antzerkizaleen topaguneak.

Ikastaroaren iraupena urriaren lehen egunetik ekainaren 24ra artekoa da, ikasturte osokoa alegia. Hileko kuota 20 eurokoa da. Hala, izena eman nahi dutenek antzerki taldearen posta elektronikora mezua bidali behar dute hilaren 27a baino lehen: [orratxlezo@gmail.com](mailto:orratxlezo@gmail.com)

Tailerrak ostiraletan izango dira, ondoko ordutegiarekin: 12-13-14 urtekoena 15:30etik 17:00etara; 6-7-8 urtekoen tailerra (talde berria) 17:00etatik 18:30era; eta 9-10-11 urtekoena 18:30etik 20:00etara. Orratx!-ek jakinarazi du ordutegi hori alda litekeela sortzea asmo duten talde berria (6-7-8 urtekoena) aterako ez balitz.

**Oroitzenen izena eman daiteke oraindik**

Hilaren bukaerara arte du zabalik Oroitzene AEK-k ikasturte berrirako izena emateko epea. Urriaren 4an dira hastekoak eskolekin. Euskaltegiko ordezkariak oroitarazi dute ordutegi zabala dutela aukeran ikasleek, eta alde horretatik arazoak dituztenek autoikaskuntzarako baliabidea dutela. Gainera, askotariko maila eta titulazio ziurtagiriak lor ditzake

**Organikoa eta errefusa, txartelarekin**

Lezoko Udalak jakinarazi du asteleheneetik aurrera hondakin organikoaren nahiz errefusaren edukiontzia giltza edo txartela sistemaren bidez zabaldu beharko direla. 2020ko martxotik giltzarik ez zen behar edukiontzi horiek zabalitzeko, COVID-19agatik ezarri zen osasun segurtasun protokoloek hala gomendatuta. Udalak lezoarrei oroitarazi die hondakinak dagokien edukiontzietan utzi behar direla: «Erabat debekatua dago poltsak edukiontzien kanpoaldean uztea».

Baliteke lezoarren batek gailuak zabalitzeko txartela galdu izana edo hura ez erabilgarri egotea. Berri bat eskatzeko aukera dute herritarrek: aurrez aurre udaletxeko erregistroan, edo telematikoki ziurtagiri elektronikoa edo sinadura erabiliz udalaren webgunetik ([lezo.eus](http://lezo.eus)). Baten batek zalantzaren bat edo iradokizunen bat balu hondakinaren bilketarako informazio bulegoarekin harremana egin dezala, 943 53 15 38 telefono zenbakira deituz.



kete eskaintzarekin bat egiten dutenek, hala nola A1, A2, B1, B2 eta C3 mailak.

Beka sistema balia dezakete euskara ikasteko erabakia hartzen dutenek: ikasturtean eskoletarako asistentzia gutxienez %85eko bada, %100 beka eskura daiteke (650 eurora arte).

Donibane kaleko 12. zenbakiko behealdean dago Oroitzeneren egoitza. Zalantzak argitzeko prest dituzte 943 51 91 44 telefono zenbakia eta [lezo@aeik.eus](mailto:lezo@aeik.eus) posta elektronikoa.



ETXETXO Omenaldia  
Sutargi abesbatza







**“TOMAS GARBIZU” LEZOKO  
UDALAREN MUSIKA ESKOLA**



**SANTAKRUTZ JAIK  
2021  
MUSIKA BANDA**

**IRAILAK 10, OSTIRALA**

**18:00etan, Musika Eskolan.**

**19:00etan,  
Plazan, Txupinazoa.**

**IRAILAK 13, ASTELEHENA**

**11:45ean, Musika Eskolan.**

**12:00etan,  
Lopenen, Desfilea  
(Banda, Txistulari eta Trikitilariak).**

**IRAILAK 14, ASTEARTEA**

**21:30ean,  
Plazan, Zezen Suzkoa.**

**BERTAN BEHERA**




UDAZKENEKO AGENDA KULTURALA  
(2021/ Iraila- Abendua)

LEZO

AGENDA  
*Kulturala*

2021 // IRAILA-ABENDUA



Lezoko  
Unibertsitateko  
Udala



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



OINARRI  
KULTURA



SAREA  
ELIZKIZKUN  
GINTZA SAREA  
RED VASCA  
DE TEATROS



# UDAZKENEKO AGENDA KULTURALA (2021/ Iraila- Abendua)

## LEZO

«Hasieratik garbi izan dugu kultura ezin zela gure bizitzetatik atera»

### XANTI VAL

LEZOKO UDALEKO  
KULTURA TEKNIKARIA

Lezoko udazkeneko kultur agenda berritasunekin iritsi da aurten. Olerkigintzari eta dantza garaikideari atea zabaldu dizkiote. Herriko eragileen lanari balioa eman dio Kultura teknikariak.

### URKO ETXEBESTE PETRIRENA

**Lezoko udazkeneko kultur agendan badira berritasunak. Horietako bat Poesia Kaia da. Zergatik erabaki duzue poesiari tarte ematea?**

Gipuzkoan zehar poesia emanaldiak egiten dira, baina oso minoritarioa da alor hau, baita irakurleetan ere. Poetek badute gaitasuna hizkuntzaren bitartez ideiak konprimitzeko eta aldi berean gauza asko esateko. Bazterrean gelditzen ari den lan eremua izanik, pentsatu dugu beste ikuspuntu batetik lantzea poesiaren alorra, musikarekin uztartuz, atseginagoak izan daitezkeen errezitaldiak. Herriarregandik hurbil nahi dugu poesia. **Poesia Kaiaren emanaldiak azaroaren 16, 18 eta 20an dira (19:30ean denak). Zer bilatu duzue zehazki horiekin?**

Aste batean saioak konprimitu nahi izan ditugu. Aro bati gorputza eman nahi genion, hau da, garai zehatz batera bideratu poesiari lotutako emanaldiak. Gainera, azaroaren 20ko azken saioa Gezalatik atera nahi izan dugu, Santo Kristo elizan izango da. Egoki iruditu zaigu saioetako



Hilaren 31ko 'Maitasunaren itxiera' antzerki obra nabarmendu du bereziki Kultura teknikariak. Miren Gaztañaga eta Eneko Sagardoi dira aktoreak. U. Etxebeste

bat, azkena zehazki, herriaren erdi-erdi-ira ekartzea. Oso minoritarioa den poesiaren kultura erdigunera ekarri nahi izan dugu. Azken horretan Jose Angel Hernandezen eta Oihane Garmendiaren errezitaldiak Arrate Zubigarai eta Jon Makuso musikarekin egingo dira. Aurrerantzean nahiko guse horretako gauza gehiago egin ahal izatea.

**Aurtengo beste berritasuna dantza garaikideko Zeta-Zeta saioena da, Dantzas konpainiarekin elkarlanean.**

Zoritxarrez, curriculumetan ez daude arte eszenikoen gaineko hezkuntza eta formazioa. Irakasten zaigu arrazionalki gauzak aztertzeraz. Batzuetan sumatzen dugu artea ez dugula ulertzen; formazio hori falta zaigu, sentimenduen gaineko formazio hori. Zeta-Zeta saioekin nahi duguna da dantza garaikidera jauzia ematea, ulertu baino, sentitzeko. Dantzari eta koreografo gazte eta oso formatuak etorriko dira Lezora, azken joerak haien buruetan dituztenak. Esplikatuko dute zer egiten duten, zergatik egiten

dituzten sortzen dituzten mugimenduak, musikarekin duten harremana... 20 minutuko saio batek lan handia duelako atzetik. Hezkuntzarekin lotura dute Zeta-Zetaren saioek. Ulertzen ez badira ere, pentsarazteko; sentimenduak sortu nahi ditugu. Horrekin batera, Lezo Herri Eskolan saio bereziak prestatuko ditugu gaztetxoekin, dantza garaikidea zer den aztertzeko.

**Udazkeneko kultur agendan ere, ohikoa den bezala, herriko eragileentzat tokia dago: liburutegiko jarduerak, Zinema Ttikia, musika eskolako ikasleen kontzertuak, Etxetxorekin memoria historikoko jarduerak, Gaxuxak eta Lezoko Emakume Taldeak antolatutakoak...**

Guk herriko kultur agenda egiten dugu. Ez da udalaren agenda bakarrik. Elkarteek jarduerak antolatzen dituzte, eta agenda barruan horiek txertatzen saiatzen gara. Udazkeneko kultur agenda ez da arte eszenikoetara mugatzen. Herrian dauden bestelako kultur adierazpenek ere badute tokia.



### Zer bilatzen duzue kultur programazio bat antolatzerakoan?

Irizpide asko daude, baina badugu misio bat: arte eszenikoak sustatzea. Hor atzean dauden sortzaile eta langile denen jarduna herrira hurbiltzea. Badaude eszenatokian ikusten diren sortzaileak, baina ikusten ez diren horiei ere garrantzia eman nahi diegu. Langile asko daude sorkuntzarekin lotuta. Euskal Herrikoak ekartzen saiatzen gara, euskararekin lotutako ahalik eta obra gehien ekartzen, eta salbuespen batzuk ere egiten ditugu Espainiako Estatutik etortzen diren konpainiekin. Azken horien lanek beti lotura dute eduki jantziekin eta egun bizi ditugun arazo edo gaiekin, mezu garbiekin gainera: migrazioa dela, berdintasuna, egoera ekonomikoa, etxeen desjabetzeak...

### Pandemia garaian ere Lezok kulturaren aldeko apustua egin du.

Egoera oso zaila izan da. Hasieratik garbi izan dugu kultura ezin zela gure bizitzetatik atera. 'Zerbait egiteko aukera badugu, egingo dugu', esan genuen. Programatutako gauza asko bertan behera gelditu ziren, baina lortu duguna da bertan behera gelditutako horien %70a ordaintzea saioa egin behar ziren unean zegoen taldeari, ondoren emanaldia egiteko data alternatiboa bilatuz eta osoa ordainduz. Hau da, kultura sustatu nahi genuen, baina bertako eragileak umezurtz utzi gabe. X

Lezoko kultur agenda osoa ikusteko joan hona:

[lezo.eus/agenda](http://lezo.eus/agenda)  
[lezo.hitza.eus](http://lezo.hitza.eus)



### Bigarren dorreoiko lanekin, kezka

Eguzki talde ekologista eta antinuklearrak kezka azaldu du Jaizkibelgo bigarren dorreoian egitekoak diren lanekin. Taldeak jakinarazi du 220.000 euroko kostua dutela obrek, eta dorreoian plataforma bat eraiki asmo dagoela, hara iristeko eskailera batzuekin. Aldi berean, errepidetik dorreoira iristeko bidea zabalduko litzatekeela azaldu du.

Eguzkik oroitarazi du Jaizkibel, beraz dorreoia, Natura 2000 Sarearen barruan dagoela: «Ez dugu ulertzen nola Eusko Jaurlaritzak obra hori baimendu dezakeen hainbesteko inpaktua duenean inguruan».

Gainera, lanak egingo dituzten eremua militarren tiro praktika gunean dagoela adierazi du taldeak, eta obren ondoren dorreoira bisitari gehiago joango direnez, segurtasun falta izango dela. Horrez gain, balizko bisiten gorakadak inguruan hondakin gehiago pilatzea ekar dezakeela aurreratu du: «Erakundeei eskatzen diegu uko egin diezaiotela Jaizkibel artifizializatzen jarraitzeari».

### Zubitxo Korkoi Beltza, hilaren 30ean

Piztu Lezok Zubitxo Korkoi Beltza antolatu du hilaren 30erako. Bertarako tiketak erosteko azken aukera gaur da, 17:30etik 19:30era salduko dituztelako (15 euroan) Saldise Plazan. 16 urtetik gorakoentzako inizatiba da.

Bi arlo bateratu dituzte Zubitxo Korkoi Beltzan. Batetik, 2019an Zubitxo Korkoi antolatu zuen Piztu Lezok, garai batean lezoarrek egiten zuten Elegante Afariaren segida modura. Gazteen arteko elkar ezagutza sustatzea, kuadrilletatik harago, izan zen 2019ko ekintzaren helburua. Bestalde, hilaren 30a Gau Beltzarena izanik, horrekin irudikatuko dute gau partea.

Zubitxo errekan hasiko dute jarduerak, Korkoiaren inguruko kontakizunarekin. Ondoren karro-poteoari ekingo diote afaltzera joateko: afarian gazteen arteko interakzioa sustatzeko jarduerak egingo direla azaldu dute Piztu Lezotik. Jaixkipe txarangak girotuko du.

### Sahatsa borda eraitsi dutelako, haserrea

Militarrek, Guardia Zibilaren laguntzarekin, Azabaratzen zegoen Sahatsa borda bota zuten astelehenean goizean. Horren kontrako elkarretaratzeari egin zuten atzo arratsaldean, eraisketa salatzeke, eta aldi berean militarrek Jaizkibel utz dezatela aldarrikatzeko, mendia herri-tarren erabilerarako izan dadila eskatuz.

**Jarri zure gailuak euskaraz**

**Bixita ezazu:**  
[www.lehenhitza.eus](http://www.lehenhitza.eus)

Lehen hitza

Lezoko Unibertsitateko Udala





# “TOMAS GARBIZU” LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA

## IKASTAROAK 2021-2022 Cursillos

**MATRIKULA EPEA** - *Plazo de matrícula.*  
**URRIAREN 8tik 22ra Octubre.**

**ORDUTEGIA:** 16:30etatik 20:00etara.  
Horario: De 16:30h a 20:00h.

### TRESNAK (Helduentzat) (\*Denontzat)

Trikitixa, pianoa, klarinetea, saxofoia, txistua, flauta, perkusioa, biolina, biola, biolontxelo, akordeoia, tronpeta, gitarra, ukelelea, ukelelea Jazz, baxu elektrikoa, bateria, atabala, darbuka\*, tronboia\*, tuba\*, bonbardinoa\*, txalaparta\*, dultzaina\*, alboka\* eta panderoa\*.

### BESTE GAIAK

- Talde Instrumentalak:  
(Konboak, Folk, Rock ....).
- Musika Elektronikoa,
- Ganbara Musika eta Errepertorioa,
- Musika Hezkuntza Helduentzat (+ 75 urte),
- Musikoterapia, behar bereziak dituzten hurrekin,
- Musika Hezkuntza Goiztiarra.  
(1-3 urte bitarteko hurrekin).

### INFORMAZIOA

“Tomas Garbizu” Lezoko  
Udalaren Musika Eskola.  
Telf.: 943529999

[tgarbizume@lezo.net](mailto:tgarbizume@lezo.net)





# El plazo de matrícula en la Musika Eskola de Lezo se abrirá en octubre

A.SLezo.Sábado, 25 septiembre 2021, 00:42

La Musika Eskola municipal de Lezo, Tomás Garbizu, abrirá en octubre el plazo de inscripción para el nuevo curso, concretamente del 8 al 22.

La oferta dirigida al alumnado adulto es la siguiente: Instrumentos: trikitixa, piano, clarinete, saxofón, txistu, flauta, percusión, violín, viola, violoncello, acordeón, trompeta, guitarra, bajo eléctrico, batería, atabal, ukelele jazz, darbuka, trombón, tuba, bombardino, txalaparta, dultzaina, alboka y pandero.

Además, también se ofrecerá la opción de participar en conjuntos instrumentales (combos, folk, rock, etc.), música electrónica, de cámara y repertorio, educación musical para adultos mayores de 75 años, musicoterapia con niños con necesidades especiales y educación musical temprana, con niños y niñas de 1 a 3 años.

Por su parte la oferta infantil es la siguiente: Instrumentos: txalaparta, dultzaina, alboka, pandero, darbuka, trombón, tuba y bombardino.


Los interesados pueden obtener más información presencialmente en la Musika Eskola (de 16.30 a 20.00 horas), en el teléfono 943529999 o vía email en la dirección de correo electrónico [tgarbizume@lezo.net](mailto:tgarbizume@lezo.net).



# <TOMAS GARBIZU>

## LEZOKO UDAL MUSIKA ESKOLA


**URRLAK 30,  
LARUNBATA**



**16:00 ETAN, MUSIKA ESKOLAN.  
GANBARA MUSIKA**

### **PARTAIDEAK:**

- **IOANNES SAGARZAZU**
- **DAVID BERGMAN**
- **IRENE SAGARZAZU**
- **MYRIAM HAMELA**
- **ANE ESPINA**
- **PAUL MUÑOZ & OIHAN ESPINA**



- **ESTHER BARANDIARAN**



### **IRAKASLEAK:**

**RAFFAELA ACELLA  
MIKEL DONAZAR  
JULEN IZARRA**



# GANBARA MUSIKA KONTZERTUA

**Concierto en la menor 1º mov Allegro.....A.VIVALDI  
El Cisne.....C.SAINT SAENS**

**Biolina: Ioannes Sargarzazu**

**Concierto en Mi M 1º mov.....J.S.BACH**

**Biolina: David Bergman.**

**Suit hellenique, nº1 eta 2.....P. Iturraide**

**Saxofoia: Paul Muñoz**

**Danzas Rumana.....B.BARTOK**

**Biolina: Irene Sagarzazu.**

**Scherzo Tarantella.....D.WIENIAWSKI**

**Biolina: Myriam Hamela**

**Introduccion, tema y variaciones.....B.H.CRUSELL**

**Klarinetea: Oihan Espina**

**Concierto no 1 en Si b M 1º mov. ....W.A.Mozart**

**Biolina: Ane Espina.**

**Pianojolea:**

**Esther Barandiaran.**

**Irakasleak:**

- **Raffaella Acella, Mikel Donazar eta Julen Izarra**

**"TOMAS GARBIZU" LEZOKO UDAL  
MUSIKA ESKOLA**

**EGUNA: 2021, URRIAK 30, Larunbata  
ORDUA: 16:00etan.**

**LEKUA: "Tomas Garbizu" Musika Eskola**





ERRENTERIA

# La oficina de la energía de Oarsoaldea continuará ofreciendo sus servicios de forma telemática

Se puso en marcha en enero de 2021 con los objetivos de reducir la vulnerabilidad energética de la comarca y optimizar el consumo energético de la ciudadanía

A.S.

ERRENTERIA. La Oficina de la Energía de Oarsoaldea ha estado ofreciendo durante estos meses un servicio de atención personalizada y adaptada a las necesidades de las personas que han acudido a ella con consultas de distinta índole dentro del ámbito de la energía, como la optimización de facturas, las ayudas económicas disponibles, las posibilidades en cuanto a instalación de renovables o la rehabilitación energética de fachadas.

Además, a través de su página web [www.oarsoenergia.eus](http://www.oarsoenergia.eus) ha facilitado gran variedad de información del ámbito energético demandada por la ciudadanía, desde consejos para entender las fac-

turas a iniciativas realizadas en nuestro entorno alrededor de la energía.

Esta oficina se puso en marcha en enero de 2021 con los objetivos de reducir la vulnerabilidad energética de la comarca y optimizar el consumo energético de la ciudadanía. Financiada por el departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa, tiene carácter de servicio público y es gratuita.

A lo largo de estos meses, el personal de la oficina ha atendido una amplia variedad de consultas relacionadas con la temática energética, «destacando especialmente la atención requerida por la ciudadanía en torno al consumo en su factura eléctrica, uno de los temas candentes del momento». Explican que «el aumento del precio de la energía, que ha llegado en el caso de la electricidad a ser hasta una media del 55% superior a hace seis meses, ha llevado a muchas familias a una situación de vulnerabilidad energética, aumentando los casos de este problema que ya estaba al alza a principios de año».

Desde la Oficina de la Energía de Oarsoaldea se están centrando los esfuerzos en reducir, en la medida de lo posible, las consecuencias de esta situación en la comarca.

### Servicios telemáticos

A la atención personalizada se pretende sumar en las próximas semanas acciones concretas para atacar este problema, como colaboraciones con los Ayuntamientos de la comarca y las entidades que trabajan con los colectivos más afectados por la situación, o la posibilidad de realizar auditorías simples en viviendas afectadas. Todo esto, por supuesto, sin descuidar el otro gran objetivo: posibilitar una mayor sostenibilidad energética en Oarsoaldea mediante la apuesta por un consumo menor y más limpio.

La Oficina de la Energía de Oarsoaldea continuará, por el momento, ofreciendo sus servicios de forma telemática, a través de la web [www.oarsoenergia.eus](http://www.oarsoenergia.eus), el correo electrónico [energia@oarsoaldea.eus](mailto:energia@oarsoaldea.eus) o el número de teléfono 943344160.

LEZO

## Campeonato de baloncesto de las selecciones de Euskadi y Navarra

A.S.

  - Sutargi Abesbatza eta Euskadiko Musikari Gazteak.

# **ABESBATZA eta GANBARA MUSIKA**



Lezoko Unibertsitateko Udala



OIARTZUN

# Auzoetan garbiketak antolatu dituzte Bazterrak Txukuntzen herritar taldeak eta Udalak

Auzolanean egingo den lehendabiziko saioa hilaren 27an izango da, Elizalde auzoan

GOIZARIN

OIARTZUN. Kezka baten bueltan elkartu dira Udala eta Bazterrak Txukuntzen herritar taldea: Oiarzungo txokoetan botata azaltzen diren hondakinek eta zikinkeriak kezkatzen ditu. Argi dute irtenbidea ez dela «garbitzea eta kito. Helburua herritarrak hondakin horiek sortzen dituzten ondorioez ohartu eta gure bazterrak gehiago ez zikintzea da».

Auzolanean, auzoz auzo elkar- tzea da Bazterrak Txukuntzen herritar taldeak eta Udalak elkar- lanean egin duten proposamenaren muina: Oiarzungo auzoak aztertu eta zikinak dauden gu- neak elkarrekin garbitzea.

Lehendabiziko saioa Elizalde auzoan egingo da, heldu den igandean, hilak 27. «Deialdia he- rritar guztientzako irekia da, haur zein heldu», adierazi du Eneritz Arbelaitz alkateordeak. «Hilero, auzo batean proposatuko da auzolana», osatu du. Hitzordu guz- tiak igandez 09:30ean izango dira eta txukunketa lanekin bu-



Bazterrak Txukuntzen herritar taldea Udaleko ordezkariekin. GOIZARIN

katutakoan, hamaiketakoia izan- go da.

«Guztzen artean edozein baz- terretan botatako hondakinen eta zikinkeriaren arazoaren soziazalazioan eta sentsibiliza- zioan eragin nahi dugu. Horre- gatik, herritar guztiei dei egiten dizuegu parte hartzera», adiera- zi dute antolatzaileek.

Egutegia

Arestian aipatu den moduan, martxoko saioa Elizalde auzoan

egin go. Apirilaren 24an Gu- rutze auzoaren txanda izango da; maiatzaren 15ean, San Isi- dro egunean, Karrika auzoan; ekainaren 19an, Ergoien auzoan, eta udako oporren aurretik, uz- tailaren 17an, Altzibar auzoan.

Udan bueltan, irailaren 18an, Iturriotz auzoko bazterrak txu- kuntzeko garaia izango da; urria- ren 15an, Ugaldetxo auzoan eta, azkenik, azaroaren 20an, Arra- guan emango zaio amaiera egi- tasmo honi.

# Gaur, 'Pirinioetako Bidean' ekimenaren aurkezpena

GOIZARIN

OIARTZUN. Gure Esku egitas- moak antolatuta, uztailaren 2an katalan eta euskal herritarrek 300 gailurretik gora argizatuko dituzte Pirinio osoan zehar. Far- rol bereziak eta linternak baliat- zuz, argi-lerro bat osatuko dute Higer lurmuturretik Creusera, Atlantikotik Mediterraneora, «gure herrien autodetermina- zio eskubidea aldarrikatzeko».

Euskal herritarrek 115 gailur argizatuko dituzte, Jaizkibele- tik Benasqueraino. Antolatzaile- lek gailur 'berdeak' eta 'gorriak' bereiztu dituzte: Gailur 'berde'

guztiak Euskal Herrian daude, eta jende gehienarentzat iris- garriak dira. Oiarzungu herriak bi gailur argizatzeko erronka dauka: Bianditz eta Errenga. Edonola ere, beste edozein gai- lur aukeratu ahal izango da.

Gailur 'gorri' gehienak, be- rriz, Erdialdeko Piriniotan dau- de, eta mendizale trebatuentzat bakarrik dira egokiak, horre- gatik, izen emate mugatua dute. Adibidez, Aiako Harria gailur gorri gisa izendatu dute.

Informazioa partekatze- ko, Gure Esku bileran irekia egin- go du gaur arratsaldeko 19:00e- tan udal areto nagusian.

LABUR

## 'Arkakusoen azoka' egin dute Elizaldeko ikasleek

Elizalde Institutuko DBH 4. mai- lako ikasleek 'Arkakusoen azo- ka' antolatu zuten pasa den la- runbatean. Eguraldi bikaina la- gun, Doneztebe Plazan jarri zu- ten bigarren eskuko azoka ikas- turte amaierako sosal biltzeko. Gauza dotoreak zituzten salgai eta herritarrek gerturatu ziren haien postura. Hori bai, saldu ez zutena Mauritaniara bidali-



Doneztebe plazan izan azoka

ko dute bildutako eskola mate- rialarekin batera.

LEZO

# 15 actividades «cargadas de energía e ilusión» de la mano de Lesoinu

Destacan las actuaciones musicales 'Tangosophy' a cargo de Javier Berná & Gorka Hermosa, y 'Arima' de Amaia Elizaran & Liam Ómaonlai

AYAR SALAZAR

LEZO. La Semana Pedagógica Lesoinu este año celebra su edición número 36. El alcalde de Lezo, Jesus Mari Martiarena, el director de la Escuela Municipal de Música Tomas Garbizu Xanti Espina, el concejal de Cultura, Ion Pombar y el técnico de cultura del ayuntamiento Xanti Val, fueron los encargados ayer de explicar todos los detalles de la presente edición, que llega «cargada de energía e ilusión».

Lesoinu se puso en marcha en la década de los 80 y a fuerza de

empeño el evento fue ganando público y con el paso de los años se ha convertido en un festival de referencia tanto en la comarca como en el País Vasco.

Lesoinu es un ciclo musical de carácter pedagógico dirigido a todos los públicos: tanto al alumnado como al profesorado y a las personas aficionadas a la música. De esta manera, se ha organizado un amplio programa de actividades que satisface a todos los públicos. Participarán diferentes agrupaciones y artistas, tanto de Euskadi como de fuera.

El programa de este año incluye 15 actividades en 12 días. Además de las actuaciones musicales, se ofrecerá un curso de producción musical y otras actividades como talleres de música o cuentos musicales, entre otros.

Xanti Espina indicó que se han programado tres tipos de sesio-

nes. Las actuaciones pedagógicas de los alumnos y profesores de la escuela de música; por otro lado están las actuaciones de los jóvenes que cursan estudios superiores de música en Musikene y en el Conservatorio Superior de Navarra. «Tendremos la oportunidad de ver cómo se ha desarrollado su carrera musical» señaló. Resaltó en este apartado a TriQ perkusio taldea, un joven grupo de percusionistas que ofrecerá un concierto el 6 de abril.

Artistas de trayectoria

En el tercer apartado se encuentran las actuaciones de los artistas profesionales y de gran trayectoria. Aquí destacó el espectáculo de dantza 'Besarkada' de Natalia Muro y Nerea Martínez; hizo lo propio con el concierto de clarinete y acordeón que ofrecerán dos renombrados artistas



Ion Pombar, Jesus Mari Martiarena, Xanti Val y Xanti Espina. ARIZMENDI

como Javier Berná & Gorka Hermosa que traen a Lezo 'Tangosophy', una obra que parte de la filosofía del tango del compositor argentino Astor Piazzolla, en una fusión de la música popular con el jazz y la música contemporánea.

También destacaron la actuación de la cubana Ana Maza, quien además de tocar el chelo también es cantante. Otro espectáculo muy recomendado será el que ofrecerá H3o Quartet el 8 de abril, con una propuesta de te-

mas propios de jazz, improvisación y mucha complicidad.

Finalmente, el espectáculo de danza y piano 'Arima', del 10 de abril con los artistas Amaia Elizaran & Liam Ómaonlai. Esta última, según Xanti Val es «una verdadera estrella de rock en Irlanda» y se presenta como uno de los puntos fuertes de la presente edición de Lesoinu.

Las entradas se pueden adquirir en la web municipal, en la misma se pueden encontrar todos los detalles de cada actividad.



OIARTZUN

# «Heldu den igandeko finala jokatzera ohorea da eta maila onena emateko gogoz nago»

## Ander Imaz Retegi Oartzungo pilotari profesionala

Unai Lasorekin batera Altuna eta Martijaren aurka ibiliko da Binakako Txapelketaren finalean

GOIZARIN

OIARTZUN. Apirilaren 3an, Ander Imazek Bilboko Bizkaia Frontoian 2022ko Binakako Txapelketaren final handia jokatu du Unai Lasorekin batera eta Altuna eta Martija izango ditu aurkari. 2015eko abenduaren 20an pilotari oartzuarrak (Oartzun, 1994) profesional mailan debutatu egin zuen Asegarcerekin, Madalensoro pilotalekuan. Sei urtez, oartzuarrak Euskal Herriko pilotari onenen artean jokatu du, mailarik onena emanez. Izan ere, atzelari oartzuarra bere ibilbideko unerik onenean dago. Bete bezain diziplinatua, ez du ia hutsik egiten. Finalerako txartela pultsuan irabazi du. Txapelketan egin duen ibilbideaz eta finalari buruz gehiago jakiteko elkartu gara kirolari gaztearekin eta hauxe da harilkatu dugun elkarrizketa.

—Emozioz beterikoa izan da aurtengo txapelketa, eta azken jardunaldira arte itxaron behar izan dute pilotazaleek finala zein bi bikote jokatu zuten argitzeko.

—Bai, halaxe izan da. Txapelketa hasi zen momentutik ikusi zen bikoteak oso orekatuak zeudela eta txapelketa osoan zehar ikusi da azken unera arte bai final erdian eta baita finalean sartzeko

ere bikote guztiek izugarri borrokatu dutela. Hori pilotazaleentzat ikusgarria izan da eta guretzat ere oso polita.

—Oso pozik al zaude lortutako emaitzarekin?

—Bai, izugarria izan da niretzat. Egia esan, txikitatik gabilta pilota munduan eta horrelako final bat jokatzeko gai izatea amets bat da niretzat. Badakigu beti oso zaila dela horrelako final batera iristea eta aurrean hori lortu dudanean, ahalik eta maila hobereana ematea nahi dut. Disfrutatzen ari naiz eta final horretan maila onena emateko gogoz nago.

—Nola sentitu zara txapelketan zehar?

—Oso gustura ibili naiz txapelketaren hasiera-hasieratik. Unai Laso oso pilotari irekia da eta azken bost hilabetez elkarrekin gabilta egunero, elkarbizitza egiten. Txapelketan ere bikote bezala oso ongi hartu dugu elkar. Azken batean, garrantzitsua da bikote moduan funtzionatzea eta hori lortu dugula uste dut.

—Txapelketa hasi aurretik zeintzuk ziren zure helburuak?

—Gure hasierako helburua final erdian sartzea zen. Hori lortuta, ikusi genuen finalean sartzeko borrokatu egin behar genuela, nahiz eta zaila izan. Eta, azkenean, sinetsi egin dugu aukerak genituela eta halaxe izan da. Alde horretatik oso pozik gaude.

—Zer moduz moldatu zara Laso zure bikotearekin txapelketan zehar?

—Horrelako txapelketa batean finalera iristeko klabea zure biko-



Ander Imaz Retegi Oartzungo pilotaria, Madalensoron. GOIZARIN

BIKOTEA

«Lasorekin oso erraza da. Oso maila ona erakusten ari da. Gustura gaude bata bestearekin»

ESKERTUA

«Oiarpen oso ongi zaindu naute, haiengatik ez bazen ez nintzen iritsiko nagoen lekura»

tearekin harreman ona izatea da. Azken batean egunero elkarrekin gaude, kotxean, elkarrekin bazkaltzen... Oso erraza da Lasorekin bikote izatea. Bera oso maila ona erakusten ari da azkeneko hila-bete luzeetan eta hori nabaritu egin da pilotalekuan jokatu dugunean ere. Oso gustura gaude bata bestearekin.

—Olaizola II. arekin tanto batera gelditu zinen finalean sailkatzeko.

—Bai, duela urte bete egoera berdinean nagoen. Final erdian bi partida irabazi nituen, eta finalera sailkatzeko 15 tanto egin behar nituen eta tanto batengatik kanpoan geratu nintzen. Kirola horrela da: momentu onak eta txarrak daude. Aurten, berriz, alde atera zait eta final bat jokatzeko ohorea izango dut eta azkenean pozik nago.

—Lehendabiziko oartzuarra izan-

go zara binakako txapelketako final bat jokatzeko. Nola prestatzen ari zara? Zer egiten saiatuko zarete?

—Azken batean, ohorea izango da Bilbon nire herria ordezkatzeko ere. Nire betiko herria da. Herri-tarrak oso ongi portatu dira nirekin, beti animo asko ematen ari dira. Finala jokatzeko aste-bete falta da eta orain arteko plan-teamenduari jarraituko dugu. Orain arteko entrenamenduekin normal arituko gara. Nahiz eta Bilboko finalean jende gehiago egon eta presioa handiago izan, maila ona ematea da gure helburua, itxura ona ematea.

—Zure ametsak betetzen ari al dira?

—Bai, dudarik gabe. Txikitatik nire lehen helburua pilotari profesionala izatea zen. Duela sei urte amets hori lortu nuen. Orain final bat jokatzera eta txapela irabazte da nire nahia eta aukera daukat, hor nago. Gainera, horrelako final bat jokatzera betirako geratuko zaidan oroitzapen bat izango da eta ilusio handiz bizitzen ari naiz.

—Zein da zure mezu Oartzun herriarentzat eta, bereziki, Oiarpe pilota eskolako neska-mutikoentzat?

—Oartzungo jendeari oso eskertua nago. Oso ongi zaindu naute. Debutatu nuenetik, animo asko jaso dut, frontoietan oartzuar asko ikusten dut. Oiarpekoekin ere oso eskertua nago. Haiek egin dako lanari esker nago ni orain nagoen tokian. Tiki-tkitatik Oiarpen nago, oso ongi zaindu naute, ez dut deus ere faltan izan eta haiengatik ez bazen ez nintzen iritsiko nagoen lekura.

—Herrian zein giro sumatzen duzu?

—Herrian jendea ilusioarekin dago, txapela herrira ekartzeko gogoz sentitzen dut. Aste berezia da guretzat, animo eta mezu asko jasotzen ari naiz. Eskertua nago oso eta ahalik eta lan onena egiten saiatuko naiz, azken tanto arte borrokatuko dut.

LEZO

## Un taller musical dará inicio a la edición 36 de Lesoinu

Hoy comienza la semana Pedagógica de la música con una actividad para los alumnos de la Escuela de Música Tomás Garbizu

A. S.

LEZO. La Semana Pedagógica Lesoinu este año celebra su edición número 36, este proyecto puesto en marcha en la década de los 80 ha ido ganando fuerza con el paso de los años y se ha convertido en un festival de referencia

tanto en la comarca como en Euskadi. Lesoinu es un ciclo musical de carácter pedagógico dirigido a todos los públicos: tanto a alumnos como a profesores y aficionados a la música. De esta manera, se ha organizado un amplio programa de actividades que satisface a todos los públicos.

Además de las actuaciones musicales, se ofrecerán cursos de formación y otras actividades: talleres de música, cuentos musicales... El objetivo de Lesoinu es fomentar la afición a la música y mantener motivados a los estudiantes.

Hoy se dará inicio a Lesoinu con un taller musical que llegará a las 17.00 en Gezala. «Un taller que ayudará al alumnado a que el próximo año escojan un determinado instrumento», señalan los organizadores. Mañana llegará el espectáculo de danza 'Besarkada' de Natalia G. Muro y Nerea Martínez a las 20.00 horas en Gezala.

El programa de esta edición de Lesoinu incluye quince actividades en doce días. Las entradas se pueden adquirir en la web municipal, donde también se puede obtener más información.

## Duelo de colistas de la División de Honor hoy entre el Allerru y el Euskalduna

A. S.

LEZO. El División de Honor Regional del Allerru tiene la urgencia de ganar para salir de la penúltima plaza y evitar el descenso. Se enfrentará hoy a las 17.00 horas al Euskalduna en Ubitarte, Andoain.

Los lezoarras cayeron el sábado anterior en casa, tienen 16 puntos y solo les quedan nueve partidos para remontar. Su rival es el colista absoluto, que

ha sumado solo 14, con lo cual el partido se presenta como una buena oportunidad para un cambio de rumbo.

En otros partidos, hoy a las 10.30 el Primera Cadete femenino en fase de ascenso saldrá a verse las caras con el Antiguo KE, de visita; a las 10.45 el Primer Infantil en fase de copa visitará al Añorga KKE; posteriormente, a las 11.00 el Allerru de Primera Infantil en fase de campeones chocará con el Orrioko FT; más tarde, a las 12.30, el Primera Cadete Copa del Allerru se enfrentará al San Marcial CD; el Primera Juvenil Fase de Ascenso jugará hoy a las 16.15 con el Behobia CD en Plazeta.

Mañana el Preferente femenino saldrá a jugar con el Irauli Bosteko KK, de visita, a las 15.00 horas.



# LESOINU 2022

## OIARTZUN



Pilotazaleek bat egin zuten atzo Ander Imazekin, Madalensoron. GOIZARIN

## Herritarren babesak indar gehiago eman dio Ander Imaz Retegiri

Oiarpek autobus zerbitzua eta afaria antolatu du heldu den iganderako

### GOIZARIN

OIARTZUN. Heldu den igandean, apirilak 3, Ander Imaz Retegi pilotari oiartzuarrek Bilboko Bizkaia Frontoian 2022ko Binakako Txapelketaren final handia jokatu du Unai Lasorekin batera eta Al-

tuna eta Martija izango ditu aurkari. Izan ere, atzelari oiartzuarra bere ibilbide profesionaleko unerik onenean dago. Beti bezain diziplinatua, ez du ia hutsik egiten. Finalerako txartela pultsuan irabazi du.

Pilotariak herritarren babes

jaso zuen atzo Madalensoro pilotalekuan. Hamarnaka herritar elkartu zen bertan eta babes emateaz gain haien animoak ere jaso zituen Imazek ahalik eta partida onena joka dezan Bilboko frontoian.

Oiarpe pilota elkarteak kideek autobus zerbitzua antolatu dute heldu den igandean Bilbora gerturatzeko. Arratsaldeko 14:30-15:00ak aldera izango da irteera, Haurtzaro Ikastolako aparkalekutik. Interesatuak Oiarpeko arduradunekin jarri beharko dute harremanetan.

Telefonoz egin nahi izanez gero, zerbaki honetara deitu behar da: 656 71 37 68. Bestela, helbide elektronikoaren bitartez, oiarp.eoiartzun@gmail.com

### Finala ondoren, afaria

Oiarpe Pilota elkarteak afaria ere antolatu du heldu den igandera. «Finala eta gero, oiartzuarrok Egiuze sagardotegian elkartuko gara, kirol festa handiari amaiera ezin hobea emateko», adierazi dute elkarte arduradunek. Sagardotegiko menua eskainiko digute, kafea barne. Guztira 32 euroen truke. Interesatuak Oiarpe deitu dezakete (656 71 37 68), ostirala baino lehenago», zehaztu dute.

Pilotazaleek badute zita garrantzitsua heldu den igandean. Partida ikusten gozatu ondoren, afari garaia aproposa izango da urduritasun guztiak uxatzeko. Oartzun, Anderrekin!

## LABUR

### UDALBATZARRA

#### Hiru mozio aztergai gaur

Gaur arratsaldeko 18:00etan martxoako ohiko udalbatzarra izango da udal areto nagusian eta hemezortzi puntuko gai zerrenda landuko dute zinegotziek. Besteak beste, Ukrainako erasoaren inguruko bi mozio aztertuko dituzte, baita Mendebaldeko Saharako gatazkaren inguruko ere. Bestalde, Oartzungo Udalaren iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako politikaren onarpena ere bideratuko da saioan.

### BIHAR

#### 'Tipularen sehaska kanta' dokumentala

Oartzungo Sarek antolatuta, bihar arratsaldeko 18:30ean 'Tipularen sehaska kanta' filma-dokumentala ikusgai izango da udal areto nagusian. Espetxean gaixotasunak suposatzen duen samina azalera ekarri nahi duen filma Lander Garrok zuzendu du. Errenteria-Oreretako dokumentagilea ere bertan izango da. «Ez galdu aukera!», gonbidapena luzatu dute antolatzaileek.

## LEZO

## «Cuando empezamos, en Lezo solo se escuchaba el txistu y la trikitixa»

Xanti Espina, director de la Escuela de Música Tomás Garbizu, reflexiona sobre la trayectoria de Lesoinu

### AYAR SALAZAR

LEZO. De la mano de la Escuela de Música Tomás Garbizu el ciclo musical Lesoinu cumple su edición número 36 y es ya uno de los proyectos musicales de referencia en la zona. Su director, Xanti Espina, recuerda que cuando empezó Lesoinu en Lezo prácticamente no había una gran actividad cultural, «había cosas muy puntuales, pero a raíz de la creación de la escuela de música, que tiene los mismos años que Lesoinu, empezó a escribirse la historia», relata. «Creímos que era indispensable tener algún tipo de referencia externa para nuestros alumnos, es por ello que creamos la semana pedagógica de la música.

Espina recuerda que «cuando empezamos en Lezo prácticamente sólo se tocaba el txistu, la

trikitixa y poco más». Luego se fue abriendo el abanico de posibilidades musicales gracias a la Escuela de Música Tomás Garbizu.

Los estudiantes empezaron a tocar otros instrumentos y pudieron tener un roce con una oferta musical variada y mucho más contemporánea. La escuela de música se creó viendo la demanda que tenía Lezo y el interés musical de las nuevas generaciones, ya que muchos Lezoarras iban a estudiar a Errenteria y se hizo plausible la necesidad de crear una escuela de música.

### Espectáculos de referencia

Sobre la semana pedagógica, Espina señala que en Lesoinu «siempre se ha buscado innovar y estar al día con lo que está sucediendo en la actualidad musical, intentando traer espectáculos variados y originales». Cuando empezó Lesoinu «era imprescindible impartir talleres de 'informática musical', y en las últimas ediciones es uno de los apartados que se suele incluir. Este año

se ofrecerá un Taller de Producción Musical. En todos estos años han sido muchos los grupos musicales que han participado en este evento, tanto nacionales como extranjeros (Francia, Finlandia, Suecia, Italia, Estonia, Lituania etc.).

«Hemos ido creciendo hasta lograr ser considerados una cita importante dentro del panorama musical», señala Espina, que recuerda que «no se trata de programar actos musicales, lo importante es traer espectáculos que puedan servir de referencia, algo que les pueda servir a los alumnos para abrir oídos y mentes».

Hace algunos años incluyeron también la danza, «ahora es uno de los elementos importantes de la semana. Lezo tiene gran potencial en cuanto a la danza y el teatro y el departamento de cultura está trabajando en apuntalar esas disciplinas artísticas. La escuela de música también lo hace, quizás más adelante deberíamos proyectarnos hacia ser no solo una escuela de música sino una escuela de arte. Yo creo que



Xanti Espina, con el cartel de la presente edición de Lesoinu. ARIZMENDI

tarde o temprano va a llegar ese día», indica Xanti Espina.

Son tres columnas importantes sobre las cuales se construye Lesoinu. La primera es el aspecto pedagógico, donde los alumnos son los protagonistas. La segunda son los alumnos que están estudiando en los conservatorios y escuelas de música y que vienen a mostrar sus trabajos. «Siempre solemos traer gente con proyección, este año vienen alumnos de Musikene y del Conservatorio Superior de Navarra».

La tercera columna son los es-

pectáculos profesionales. Este año destacan claramente las actuaciones musicales 'Tangosophy' a cargo de Javier Berná y Gorka Hermosa, 'La flor' de la violonchelista y cantante cubana Ana Maza y 'Arima' de la bailarina Amaia Elizaran y el pianista Liam Omaonlari.

El programa de este año incluye 15 actividades en 12 días, participarán diferentes grupos y artistas, tanto de Euskadi como de fuera. Las entradas se pueden adquirir en la web municipal donde se detalla cada actividad.



## LEZO

«Musikan egunetik egunera gauzak aldatzen ari dira»

## XANTI ESPINA

LEZOKO MUSIKA ESKOLAKO ZUZENDARIA

Gaur hasi eta apirilaren 10era arteko egunak bestelakoak izango dira Lezon, hobeak. Lesoinu Aste Pedagogiko Musikalaren 36. ekitaldia iritsi da, beti bezala askotariko kultur erreferenteekin.

## URKO ETXEBESTE PETRIRENA


Xanti Espinak, Tomas Garbizu Lezoko Udaleko Musika Eskolaren zuzendari den heinean, ondo ezagutzen ditu Lesoinuren barrenak. Aste pedagogiko musikala antolatzerakoan udaleko hainbat sailrekin izandako elkarlana gorai-patzeaz gain, aurtengo egitarauak dituen altxorrekin pozik da.

**36. Lesoinu. Tomas Garbizu Musika Eskolarentzat garrantzitsua da aste pedagogiko musikala, ezta?**

Hala da, bai. Hasieratik pentsatu genuen herrian musika eskola izatea ez zela nahikoa. Erreferente bat behar zen gure lana kalera ateratzeko. Ezin ditugu ikasleak utzi bere instrumentuekin bere etxean entseatzeko. Lan gogorra egiten dute, eta kanpora atera behar dute. Bessetik, erreferenteak behar dituzte ikasleek: kanpotik etortzen diren musikariren zein maila duten, eta zein musika anitza interpretatzen duten ikusten dutenean begiak zabaltzen dituzte.

**Nola jaio zen Lesoinu?**

Hori zehazteko, musika eskolaren bera-



U. Etxebeste

ren sorrerara joan beharko litzateke. Instrumentuei dagokienez, hasiera batean akordeoi eta txistu eskolak genituen bakarrik. Eusko Jaurlaritzaren aginduz, bestelako instrumentuak sartzen hasi ginen. Eta erreferente hurbil oso gutxi genituen. Aurtengo Lesoinuren programari erreparatuta, esaten duzu: 'Demontre! Nora iritsi gara! Zenbateko instrumentuen aniztasuna!'. Ikasle asko, gainera, bere bidea egiten ari dira bakar-lari bezala eta taldeetan. Eta originaltasunean ere aurrera urratsak egin ditugu: rock edo folk taldeak ditugu, eta haien kontzertuak egiten dituzte.

**Beraz, eskolako hornen barruan ez da gelditzen lezoar musikariren talentua.**

Oso garrantzitsua da hori. Gure ekarpena kalean egin behar dugu, eta herrian egiten diren kultur ekitaldi edo egitasmo askotan parte hartzen ari gara hasieratik. Urtero ia 100 emanaldi egiten ditugu, beraz, horrek esan nahi du gure kalera ateratzeko beharra herrirako onuragarri dela. Azken adibidea igandekoa da: zigortutako maisu-maistren omenaldian parte hartu genuen.

**Lesoinu erreferente da, ez bakarrik Lezon. Oarsoaldean behintzat hainbeste urtez aurrera egin duten musika ziklo askorik ez da.**

Gure egitasmo pedagogikoaren barruan sartuta dago Lesoinu. Beti energia handia jartzen dugu dena ondo atera dadin, eta astea erakargarri izan dadin. Eskertzekoa da aldi berean udalaren partetik jasotzen dugun laguntza, baita ikasleen nahiz haien gurasoen inplikazioa ere.

**Egitarauan beti berritasunak txertatzen saiatzen zarete.**

Ondo oroitzen badut, lehen Lesoinun organo kontzertu bat, Donostiako Orfeoia, eta beste koru baten emanaldia izan ziren. Noski, horrelakoak mantendu behar ditugu. Baina musikan egunetik egunera gauzak aldatzen ari dira, ezin dugu geldirik egon. Aste pedagogiko musikala da gurea, eta beti ari gara pentsatzen zer gehiago eskaini ikasleei nahiz herritarrei. Baloratzekoa da, aurtengo adibidez, tangoa, dantza musikarekin, musika ekoizpen digital tailerra, edo Kubako interprete berezi bat ekarriko ditugula. Ez gaude geldirik.



## 12 EGUN, 16 EKITALDI

Gaur bertan hasiko dira Lesoinu XXXVI. Aste Pedagogiko Musikalaren emanaldiak: 17:00etan, Tomas Garbizu Musika Eskolako ikasle eta irakasleek tailer didaktikoa egingo dute Gezalan. Etzi, berriz, dantza Gezalan (20:00, 8 euro): *Besarkada* ikuskizuna emango du Nerea Martinezek. Apirilaren 10era arte luzatuko dira Lesoinuren emanaldiak.

Astearteko aurkezpenean Ion Pombar Kultura zinegotziak nabarmendu zuen Lezo kultur arloan erreferente dela, eta horren erakusle dela Lesoinu. Sailen arteko elkarlanaz «harro» azaldu zen Pombar: «Kulturaren aldeko gure apustua irmoa da. Lezo eskualdean erreferente izateaz gain, euskal kulturaren mapan dago».

Egitarau osoa ikusteko, joan honako webgunera: [oarsoaldea.hitza.eus](http://oarsoaldea.hitza.eus).

**Lesoinu, ordea, ez da musika bakarrik. Dantza eta antzerkia ere badaude. Musika eskolaren jarduna, arte eskola izaerantz bideratu nahi duzue?**

Lezon arte eszenikoen arloan potentzial handi eta dinamikoa dago. Dantzan askotariko artistak ditugu, antzerki mugimendua ere dago, eta noski, musika. Gauza horiek kontuan hartu behar dira, eta zaindu. Kultura Lezon garrantzitsua bada, zergatik ez hori guztia arte eskola batean kontuan hartu? Uste dut bideragarria izango litzatekeela. ✕



## AITORTZA, EZ AHAZTEKO

ERIK SALAZAR


Antonia Altuna, Victoria Igarzabal, Jose Las Heras, Maria Paz Ovejero, Ricardo Fernandez, Isaac Goñi eta Miren Gezala. Horiek, frankismoak era batera edo bestera zigortu zituen Lezoko maisu maistren izen-abizenak. Udalaren eta Etxetxoren ekimenez igandean omendu zituzten haiek denak. Lezo Herri Eskolaren atarian haien aitortzarako monolitoa jarri zuten.

## Informatika eskoletan badaude plazak

Aiton Bordaren informatika ikastarorako badaude plazak oraindik. Eskolen gaineko informaziorako edo izena emateko elkartearen egoitzara joan behar dute interesdunek, astearte edo ostegunetan, 10:00etatik 11:30era. Ikastaroa Erretereria-Oreteran egingo dute, goizeko ordutegian.

## Hirugarren igogailuaren lanak

Altzate igerilekuaren ingurua eta Altamira auzoa batzeko igogailuaren lanak hasi direla azaldu du Lezoko Udalak. Urri aldera bukatuko dituzte obrak. Lezoko kaleetako hirugarrena izango da, Ijurkkoa eta Bekoerrotako Altzatekoa jada martxan direlako. 716.000 euroko aurrekontua dute obrek.



**Kutxazain  
automatikoetan  
aukeratu EUSKARA!  
Kontatzen du!**



2022/04/01

zituenik... Tereren amak, Carmenek, esku oso ona zuen herritarrekin, harreman profesionala baina goxoa. Aholkuak ematen zizkien herritarrei, ez zen mugatzen botikak saltzera. Eta lezoarrek euren arazoak kontatzeko joera zuten.

**Ofizioa asko aldatuko zen urte hauetan guztietan.**

Asko, bai. Lezo herri txikia da, eta garai batean bezala, ia jende guztia ezagutzen dugu, eta harreman ona dugu. Baina den-dena aldatzen ari da. Lehen familia batean arazoak zeudenean, askotan, guri esaten zizkiguten. Esan daiteke botika bat baino gehiago ginela, konfiantzazko toki bat. Baina orain ez da horrela.

**Eta ordenadoreak iritsi ziren...**

Lehen ia dena buruz egiten genuen, eta telefono finkoarekin. Hemen izan genuen lehen makina, kodeak sartzeko eta eskaerak egiteko balio zuena, duela 25 bat urte iritsi zen, pentsa.

**Azken bi urteak pandemiarekin izan zarete lanean. Nolakoak izan dira?**

Gogorak. Ordu asko sartu ditugu, buruhauste askorekin... Hona jendea oso apuratu zatorren, ezjakintasun handiarekin, ziur zer egin ez zekitela. Pasatu dela dirudi, eta ea hala den.

**Nolakoak dira lezoarrak?**

Lehenik eta behin, lezoar guztiei eskerak eman nahi dizkiet eman didaten tratuagatik. Jende ona da Lezokoa. Noski, toki guztietan egoskorren bat izaten da, baina... Lekeiotik hona 12 urterekin etorri nintzen, gero Oiartzunera bizitzera joan nintzen, baina Lezorekin eta lezoarrek dudak harremana sekulakoa da. Lagunak ditut hemen, koinatuak hemen bizi dira [senarra lezoarra du]. Le-kittarrekin badute ezberditasun bat: haiek itxiagoak dira. Hemen beste mota bateko jendea bizi da, irekiagoa.

**Zer egiten duzu orain?**

Pintatzea gustuko dut, pilatesen aritzen naiz, bilobarekin izaten naiz... Lasai bizi naiz. Batzuetan ematen dit inpresioa denbora galtzen dudala; lehen beti egiteko zehatzak nituen, eta oraingo lasaitasunarekin iruditzen zait denbora galtzen dudala. Ibiltzea oso gustuko dut, eta udaberria hasi dela gehiagotan aterako gara. Bidaiatzea ere oso gustuko dut, mundua ezagutzea. X

**Mendekosteen Jai batzordea, asteartean**

Aurten badirudi baietz. Pandemiagatik bi urtean (2020an eta 2021ean) mendekosterik ez da izan Lezon. Dena ondo bidean, 2022an berpiztuko da Lezoko piraten grina, mendekosteak bidean dira. Urteko lehen festak prestatzeko bilerara deitu dituzte lezoarrak: asteartean da Jai Batzordearen bilkura, 19:30ean, Kultura Aretoan. Bi gai izango dituzte aztertzeko bertaratu direnek. Lehenean, aurreko Jai Batzordearen aktaren onarpena jarriko dute mahairen gainean; bigarrenetan Mendekoste Jaiak nolakoak izango diren zehazten hasiko dira norbanako eta eragileak.

**Indartsu dator Lesoinuren asteburua**

Lesoinu XXXVI. Aste Pedagogiko Musikalak bigarren asteburua egingo du. Gaurtik igandera bost ekitaldi daude zerrendan. Gaur, 11:00etan, kontzertu pedagogikoa egingo dute musika eskolako ikasleek eta irakasleek, eskolan bertan. 17:15ean, *Zuhaitzak landatzen zituen gizona* antzerkia eskainiko du Gorakada taldeak. Bihar, *Tangosophy* ikuskizuna landuko dute Gezalan (20:00) Javier Bernak eta Gorka Hermosak, eta etzi txistularien diana (10:00) eta Ana Maza kubatarren kontzertua (20:00, Gezalan) izango dira.

**GUTUNAK**

**Artzainik gabeko artaldea: agur Gaztelu!**

Maiz joan ohi gara Jaizkibel aldera hango edertasuna bertatik bertara dastatzera; hala nola, Kantauri itsasoa, trikuharriak, karlisten garaiko dorreak, otea, kamamila, hondar-harria, larrea eta bakoitzak gura duena, batik bat. Hantxe bizi dira ia urte guztian behor-zaldizko, betizu, ardi eta bestelakoak. Zorionez, aspaldian suak ez du eten naturaren berezko bizitza.

Bestalde, Donejakue bidea izaki, erromes askorentzat itsas-hegiko bidea ere bera da.

Martxoaren 24an, ordea, Lezoko Goiz-Argi Bordako Gazteluk, Jaizkibelgo artzainak, ez zuen ohiko biderik egin, ondoezak jota hilotz geratu baitzen etxean.

Gaur, biharamunez, Irungo Olaberria auzotik Iturburu baseritik gorantz nindoala, ustekabean topo egin dut Gazteluren artalde batekin; 20-25 ingurukoa, artzainaren zain eta zain, haietako bat mutur beltz umatua zegoela esan dit lekukoak, negarra zerion birtartean.

Baina artzainaren aztarnarik ez. Non da Jaizkibelgo artzaina, artaldea bakardadean utzirik?

Txerri goseak ezkurra amets bezalaxe ikusi dut hogeiko artaldea; gainerakoak han-hemenka eta gehienak Jaizkibelen. Irungo oihanaldetarrei salduak ere bazituen, baina Gazteluk ardirik gabe ezin etsi. Aurreantzean ardirik ikusiko ahal dugu Jaizkibelgo larreetan!

**Jexux Aizpurua Barandiaran.**

**LEZO AGENDA Kulturala**

Lezoko Unibertsitateko Udala, Lezoko Udalak, Kultura, SAREA

**MUSIKA**



**02** APIRILAK 2, larunbata, 20:00etan. Gezala Auditoriuma.  
**TANGOSOPHY**  
"ESENCIAS"  
Sarrera 8 €.



**03** APIRILAK 3, igandea, 20:00etan. Gezala Auditoriuma.  
**ANA MAZA**  
"BAHÍA"  
Sarrera 8 €.



LEZO

## Este fin de semana continúan las actuaciones musicales de Lesoinu

Destacan 'Tangosophy' de Javier Berná y Gorka Hermosa mañana y 'La Flor' de la cubana Ana Maza, el domingo

AYAR SALAZAR

LEZO. La Semana Pedagógica Lesoinu ya está en marcha celebrando su trigésimo sexta edición, donde las actuaciones musicales continúan este fin de semana. Hoy hay doble cita, a las 12.00 se ofrecerá un concierto pedagógico a los alumnos de la Escuela de Música Tomas Garbizu.

Más tarde a las 17.15 horas en Gezala llegará un espectáculo teatral y musical basado en el cuento alegórico del autor francés Jean Giono, 'El hombre que plantaba árboles' en su versión en euskera, adaptada por Kike Díaz de Rada y José Carlos García de la compañía Gorakada, bajo el nombre de 'Zuhaitzak landatzen zientuen gizona'.

La historia narra el encuentro de dos hombres. Un pastor que se esfuerza en convertir un desolado valle en las estribaciones de los Alpes, cerca de la Provenza, en un bosque y un joven en búsqueda de sí mismo. Gracias a este encuentro, el joven descubre que la voluntad y la generosidad son las armas de la resiliencia. De telón de fondo los avatares de la historia europea, las dos guerras mundiales, el nacimiento de la conciencia ecológica, el discurso vacío de la política... Todo contado desde el en-

tendimiento de la naturaleza, la fuerza creativa del ser humano y el amor a los pequeños detalles.

Mañana a las 20.00 horas Gezala acogerá el concierto de Javier Berná & Gorka Hermosa 'Tangosophy', un programa que parte de la filosofía del tango del compositor argentino Astor Piazzolla en una fusión de la música popular con el jazz y la música contemporánea. El espectáculo de Berná y Hermosa recoge composiciones de autores cercanos a esta estética musical como Richard Galliano, Germán Díaz o el mismo Gorka Hermosa. En palabras de los críticos «Hermosa piazoliza y lleva a su terreno diferentes ritmos tradicionales ibéricos como la bulería flamenca, fandango vasco, jota aragonesa...».

### Domingo

El domingo a las 10.00 la Diana recorrerá las calles del pueblo, a cargo de los Txistularis de la Música Eskola. Más tarde, la cantante y violonchelista cubana Ana Maza presentará a las 20.00 horas su último proyecto musical, 'La Flor', el mismo que viene recorriendo la geografía francesa en un tour muy intenso. La particularidad de Maza es que además de tocar el violonchelo también canta, haciendo una aportación interesante que hace que su puesta en escena sea muy novedosa, ampliamente recomendable.

El programa de Lesoinu este año incluye quince actividades en doce días. Las entradas se pueden adquirir en la web municipal.

## El Allerru se enfrenta mañana al Eibar en Plazeta con la urgencia de sumar tres puntos

A.S.

LEZO. El División de Honor del Allerru aupado por el empate conseguido en su último partido frente al Euskalduna, intentará jugar todas sus cartas en las ocho finales que le quedan para buscar salvar la categoría y conseguir el gran objetivo que se fijaron al inicio de la temporada.

El rival de turno será un potente Eibar, que marcha tercero con 50 puntos en la tabla. El lance será mañana a las 16.30 horas en el campo de Plazeta y el aliento



Será mañana a las 16.30. ARIZMENDI

de la afición será un elemento muy importante a la hora de darle el empujón anímico que le ha faltado durante la temporada al cuadro que viene siendo dirigido por Aitor Resende desde hace cuatro semanas atrás. Desde la directiva del club indican que «el Allerru saldrá a luchar todos los partidos como una final».

## LESOINU 2022

OIARTZUN

# Aurrera doa Euskal Herriko Pala Txapelketa Irekia

GOIZARIN

OIARTZUN. Pasa den asteburuan beste jardunaldi bat jokatu zen Madalensoro pilotalekuan eta pixkanaka badoa aurrera urtarrean abiatu zen Euskal Herriko pala txapelketa. Gizonezkoen kategorian dagoeneko amaitu da liga fasea. Emakumezkoen kategorian, berriz, aurreko asteburuan hasi ziren eta asteburu honetan bukatuko dute lehen fasea eta, gizonezkoen moduan, kanporaketa fasean sartuko dira.

Asteburuan, bi bikote oiartzuar aritu ziren eta bakarrak egin zuen aurrera, Arizmendi-Arbelaitz bikoteak hain zuzen. Oartzuarrek 25-18 mendeen hartu baitzuten Vicente-Arribalo pasaitar bikotea. Aipatu behar da Arbelaitzen ordez Arriburu aritu zela, izan ere atzelari oiartzuarra lesionatuta dago.

Beste bikoteak, aldiz, Mitxelena-Asteasuinzarrak partidu ona jokatu bazuen ere, 25-19 galdu egin zuen Nuin-Ferreiro donostiarrak bikotearen aurka eta txapelketatik kanpo gelditu da.

Emakumezkoen ligaxka ere aurrera doa eta laster hasiko dira kanporaketak jokatzeko. Aurreko asteburuan hiru partidu jokatu ziren eta honetan beste hainbeste




Zutik, Larralde, Beloki, Bidegain epailea, Luixa eta Etxeberria. Makurtuta, Gartzandia, Balzola, Balerdi eta Eizmendi. GOIZARIN

te jokatu dira.

Gaur, apirilak 1, Truk txapelketa izango da Pagoa Kafe Antzokian. Izan ere, hemendik aurrera hilabeteko lehen ostiraletan jokatu da Oartzunen hain errotuta dagoen karta joko hori. 22:00etan jarri dute hitzordua eta oso sari ederrak prestatu dituzte. Lehenengo saria, arkume bat (Lekungarai baserrikoa); bigarrena, bi txangurro eta bi ardo botila; hirugarrena, Pagoa garagardoa. Bigarren auke-

ra ere eskainiko dute antolatzaileek. Horien sariak, berriz, hauek izango dira: lehenengo saria, bi oilasko eta bi ardo botila; bigarrena, bi ardo botila; hirugarrena Pagoa garagardoa.

Izen ematea dagoeneko egin daiteke, 619 421 153 telefono zenbakira deituta edo Pagoan bertan. Ordainketa Bizum bitartez egin daiteke 619 421 153 zenbakian (izen abizenak gehi truk jarri) edo Pagoan. Izen ematea 15 euroen truke egingo da.



Klarene plazako azpiegiturak berritu dira. GOIZARIN

## Altzibarko berrurbanizazio lanen bigarren fasea epe motzean bukatuko da

GOIZARIN

OIARTZUN. Altzibar auzoa berritzeko lanak aurrera doaz. Dagoeneko Martintxo kaleko eta Klarene plazako azpiegiturak berritu dira eta oinezkoentzako pasabideak ere egin dira. Eremu horietan lanak Aste Santu aurretik bukatuko direla aurreikusten du Udalak. Hurrengo fasea Donepe-

tri kalea berritzea izango da. Hurrengun hasi ziren lehendabiziko lanak. Eremu horretan ere lurpeko azpiegiturak berrituko dira, oinezkoentzako pasabideak berritu eta errepidea asfaltatuko da. Lan horiek Aste Santu ondoren izango dira eta kalea itxiko da, zenbait aldaketa eraginez.

Donepetri kaleko lanak direla eta, kale horretako bizilagun-

nen hondakinen zintzilikarioak Donepetri 1 atariaren aurrean jarriko dira.

«Lanen helburu orokorra Altzibar auzoa biziberritzea da: auzoa erosoagoa izatea altzibartarrentzako; zaharkituak dauden eremu eta azpiegiturak berritzea; eta mugikortasuna hobetzea, auzoa segurua eta irisgarriagoa eginez», azpimarratu dute Udal ordezkariak.

«Helburu horiek lortzeko oinezkoen bideak berritu, errepideak asfaltatu eta azpiegiturak (ur-harguneak, saneamenduzarea eta argiteria lurperatzea) berrituko dira Altzibar auzoaren erdigunean», gaineratu dute.


### 1940ko kintoen bazkaria

Laurogei eta bi urteren bueltan dabilenak, 1961eko kintoa, hitzordua dauka Tolare jatetxean igande honetan. Koronabirusak eragindako egoerak bi urtez ez die elkartzen utzi baina aurten bai egingo dute. 12:00etan San Esteban parrokian elkartuko dira meza entzuzera, hil diren kintoen omenez. Gero, 14:00ak aldera, bazkari goxo bat egingo dute Tolare jatetxean.

Zalantzak argitzeko eta izena emateko Javier Ugaldedereri deitu behar zaio, 600 781 290 telefono zenbakira.



# LEZOKO



# KANTUJIRA



**APIRILAK 9, larunbata  
12:30ean, Aiton Bordan.**

***Anima zaitez!!!***

Musika Eskolan eskuratu daitezke.



1. BAIONATIK BILBORA

Badu nora heldu, ez du zeri heldu,  
itsaso hutsa da nire herria.

Baionatik Bilbora itsaso errea,  
putzu honek ez du itoko gure haserrea.

Baionatik Bilbora itsaso petrala  
aspaldi esan zidaten besterik ez zala.

Baionatik Bilbora itsaso pobrea  
non du aurkitu behar Euskadik hobea.

Baionatik Bilbora itsaso aingura,  
nadila zure albora oraindik ingura.

Baionatik Bilbora itsaso zakarra  
baldin baneki nora kamino bakarra.

Baionatik Bilbora itsaso euskara,  
umorea badaukagu ta galduak ez gara.

Baionatik Bilbora itsaso itsaso nafarra,  
datorkigula behera amets honen afarra.

Baionatik Bilbora hartzen du ekaitzak,  
arrokak ongi dakizki txaluparen gaitzak.

Baionatik Bilbora itsaso gorria  
Baionatik Bilbora gure memoria.

Bilbotik Baionara alua itsasoa,  
igeri ez dakiena handarrera doa.

2. ARDIAK LERRO LERRO

Ardiak lerro lerro mendi maldan doatzi  
Haize firfira batek deituz gorago beti  
Ibai zola erreketan denak lotan sartzen dira  
Zoin amultsua zautan gaua jausten mendira.  
La, la, la, la .....

Egunaz ixil bazen gauaz pizten mendia  
Belar punta bakotxak nasai dakar bizia  
Gaztain ondotan kukuak joiten dauku soinua  
Eta izarrekilan pestan dugu zerua.  
La, la, la, la .....

Oroituko naiz beti Arradoiko bazterrez  
Horrarat so gelditu bai naiz maiz begiez  
Baina orain ezin dut Zangorik kor finkatu  
Bizi bihurri hunek bai nau hortik urrundu.  
La, la, la, la .....

3. . BEGIAK PARREZ PARREZ

Begiak parrez parrez | berriz  
bihotza negarrez,  
halaxe joaten nintzan, maitia, | berriz  
zugandik dolarez,  
Ai, ai, ai.

La, la, la, la .....

Ama zuriak neri, | berriz  
parian pasata,  
ez dit agurrik egin, maitia, | berriz  
burua jirata,  
Ai, ai, ai.

La, la, la, la .....

Ama zuriak neri, | berriz  
ez agur eiteko  
zer palazio dauka, maitia, | berriz  
zuri emateko,  
Ai, ai, ai.

La, la, la, la .....

Palazio eder bat, | berriz  
haitzaren gañian;  
ez da euririk sartzen, maitia,  
ari ez dunian, Ai, ai, ai.  
Ez da haizerik sartzen, maitia.  
Ez dabilenean.

La, la, la, la .....

4. PILOTARIEN BILTZARRA

Agur, agur, jente guzik! agur bihotzetik!  
Zaharrak eta gaztiak bildurik hurruntik!  
Euskualdun joko jaunari bere lur harrotik  
Lili eder bat da egun zabaltzen itzaletik.

**Gizon gaztentako beharra,  
Ta zaharren indarra,  
Gora kanta obra ederra,  
Pilotarien biltzarra!**

Gure jinko jaunak deizku ezarri mundian  
Txorik kantuz oihanian et'ardik mendian,  
Untzietan marinela itxaso-erdian  
eta pilota maitia Eskual-herri aldian.

Arbolarik ederrena oihanian haitxa,  
Aize handirenak dio etzela ez thatxa:  
Euskualdun pelota horri ez besuak khutxa;  
Bethi nausi izan dadin, denek dezagun altxa!



# <TOMAS GARBIZU>

LEZOKO UDAL MUSIKA ESKOLA

**MALATZAK 14,  
LARUNBATA**



**16:30ean, MUSIKA ESKOLAN.**  
**GANBARA MUSIKA**

## **PARTAIDEAK:**

• **IOANNES SAGARZAZU**



• **DAVID BERGMAN**

• **IRENE SAGARZAZU**

• **MIRIAM HAMELA**



• **ANE ESPINA**

## **IRAKASLEAK:**

**RAFFAELA ACELLA, TATIANA SAMOIL**



# GANBARA MUSIKA

## KONTZERTUA

Concertino mov.2 Lento.....F.KUCHLER  
Concierto en Sol M 1º parte.....G.P.TELEMANN

**Biolina: Ioannes Sagarzazu.**

Preludio de la Partita en Mi M.....J.S.BACH  
Concierto en Re m op- 21 mov. 2.....H.WIENIAWSKI

**Biolina: Miriam Hamela.**

Escenas de Ballet.....CH.A.DE BERIOT

**Biolina: David Bergman.**

Notturmo.....K.SZYMANOWSKI

**Biolina: Ane Espina.**

Rondino.....H.VIEUXTEMPS

**Biolina: Irene Sagarzazu.**

Recitativo e Arioso.....W.LUTOSLAWSKI  
Concierto en mi m op 64 1º mov.....F.MENDELSSOHN

**Biolina: Miriam Hamela.**

**IRAKASLEAK:**


**RAFFAELA ACELLA ETA TATIANA SAMOL.**



“TOMAS GARBIZU” LEZOKO  
UDALAREN MUSIKA ESKOLA


TOMAS GARBIZU  
LEZOKO  
UDALAREN MUSIKA ESKOLA  
Tel. 943 57 99 99 - info@tomasgarbizu.es

EGUNA: 2022ko maiatzak 14, Larunbata.  
ORDUA: 16:30ean.  
LEKUA: Musika Eskola.





# V bortzirietako abesbatza topaketa



**Bihotzez Abesbatza (Getari-Lapurdi)**

**Sutargi Abesbatza (Lezo)**

**Giltzarri Abesbatza**

**HARRIONDOA - LESAKA**

**MAIATZAREN 14AN - ARRATSALDEKO 20:00ETAN**

**ANTOLATZAILEA:**



**LAGUNTZAILEAK:**





# gipuzkoako abesbatzen jaialdiak



gipuzkoako  
abesbatzen  
federazioa



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Garapena  
eta Kiriak Departamentua

Diputación Foral  
de Gipuzkoa  
Departamento de Cultura,  
Turismo, Juventud y Deportes



kutxa  
FUNDACIÓ A

## V. BORTIZIRIETAKO ABESBATZA TOPAKETA V. ENCUENTRO CORAL DE BORTIZIRIAK

HARRIONDOA - LESAKA

2022 Maiatzaren 14an-arratsaldeko 20etan / 14 de mayo a las 20.00 h. 2022

### Giltzarri Abesbatza - Dir. Isabel Lúcar

Mariam Matrem Virginem ..... Text Medieval, Music by Michael McGlynn  
Zure Gabezia ..... Hitzak: Urko Bilbao/Musika: Eva Ugalde  
Kristalez Inguratuta ..... Musika eta Hitzak: Mikel Errazkin / konponketa Eva Ugalde  
Lela ..... Arr: Julio Dominguez  
laute, iaute ..... Josu Elberdin

### Bihotzez Abesbatza (Getari - Lapurdi) - Dir. Isabelle Ainciart

Nire Aitaren Etxea ..... Hitzak: G. Aresti/Musika: J. Gurtcharry  
Magnificat ..... Patxi Oroz Aricuren  
Akelarre ..... Hitzak: J.P. Biskay / Musika: J. Gurtcharry  
Segalariak ..... Josu Elberdin  
Oi Baldemar ..... Hitzak: M. Ohaco-J.P. Biskay / Musika: J. Gurtcharry  
Atzo ..... Hitzak: Pere Iratzeder / Musika: G. Prinelli

### Sutargi Abesbatza (Lezo) - Dir. Xanti Espina

Aleluia ..... L. Cohen  
Zurekin Batera ..... ETS  
Xalbadorren Heriotzean ..... Xabier Lete  
Va Pensiero ..... G. Verdi  
Negua Joan Da Ta ..... Zea Mays


### Guztiak batera / Obra común

Maitia, Nun Zira? ..... J. Uruñuela

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



Txirula Loredenda



# LEZOKO



# KANTUJIRA



**MAIATZAK 21, larunbata  
12:30ean, Aiton Bordan.**

***Anima zaitez!!!***



1. IKUSI MENDIZALEAK

Ikusi mendizaleak baso eta zelaiak,  
mendi tontor gainera igo behar dugu.

Ez nekeak, ez da bide txarra,  
gora, gora, neska-mutilak,  
a, a, a, gu euskaldunak gara,  
Euskal Herrikoak.

Hemen mendi tontorrean, euskal lurren artean,  
begiak zabaldurik, bihotza erretan.

Hain ederra, hain polita da ta;  
gora, gora euskal Herria,  
a, a, a, gu euskaldunak gara,  
Euskal Herrikoak.

2. EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Euskal Herrian euskaraz  
